



5. JARDUNALDIA

COVID-19A BIZIPOZAN: BIZIPENAK, GOGOETAK ETA IKASKUNTZAK

2021ko ekainaren 19a

AURKIBIDEA

SARRERA	1
LANAREN NONDIK NORAKOAK.....	2
EMAITZAK ETA GOGOETA	3
1. Ikararen inguruko hausnarketa bat.....	4
2. Harremanak pribilegio bilakatuta	5
3. Hezkuntza-sistema: premia bereziak dituen instituzioa	8
4. Administrazioa eta gizartea gaitzak jota: non dago ongizatea?.....	13
4.1. Jendartea pandemia garaian: bi aurpegi.....	14
4.2. Administrazioa ote ongitasunaren jabe?	15
5. Elkarateak eta familiak sendagile nagusi	19
5.1. Familiak: konpromisoa eta diziplina.....	20
5.2. Elkarateek ez dute etsi	22
ESKUBIDE-EGOERAN ALDAKETAK	23
1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala izurri garaietan	24
Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (1966) eta izurria.....	25
Haurren Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzio (1989)	25
IKASPENAK eta AURRERA BEGIRAKOAK	26
KONKLUSIOAK.....	29

SARRERA

Utopiarekin konkluditu zuen Joxe Mari Agirretxek lehengo urteko jardunaldia. Eduardo Gleanok aurretik adierazi zuen moduan, *“utopia horizontean dago eta badirudi lortzea ezinezkoa dela, utopiarantz hamar pausu eman eta utopia hamar pausu urrunduko da; orduan zertarako balio du utopiak? utopiak horretarako balio du, pausuak eman eta aurrera egiteko”* esan zigun eta, horretan, pausuak ematen jarraitzea da lan honen jomugetako bat. Utopiak lortzera bidean gure esku daudenak egitea, alajaina. Baina badakigu azterketa xume hau pauso bat bakarrik dela, aurretik ere hamaika oinatz izan direla markatuak eta utopiak, gure jomuga nagusiak, oraindik urrun jarraitzen duela. Ibilian-ibilian goaz ordea.

Utopia terminoa Tomas Morok¹ erabili zuen lehen aldiz XVI. mende hasieran, garai hartako amets bakezaleei halako definizio bat ematen zien termino bat izateko. Egin zuena zera izan zen, grekozko *eutopia* (toki ona) eta *outopia* (inongo tokia) hitzak elkartu: hortaz, terminologikoki, ez dagoen toki ona da utopia. Gerra-egoerak ugariak ziren garaietan, bat-bateko mehatxurik gabeko eta beldurrik gabeko etorkizuneko gizarte batean sinesten zuen Morok; hots, oraindik existitzen ez zen toki on batean amesten zuen. Orain, gu bizi garen testuinguruan guda militarrek ez dira agian hain maiz gertatzen, baina beste arazo batzuk sortzen dira –desberdintasunak, estresak, arazo psikosozialak, etab.– eta problema horien aurrean Bizipozako kideon utopiarantzko joeraren garrantziaz jabetzea dakar horrek: **“mundu bat guztiontzat”**, amesgarria, oraindik existitzen ez dena, baina aurrerapausoak emateko beharrezkoa. Horrek esan nahi du, batzuek *utopiaren amaieraz* hitz egiten duten bitartean eta “progresurako” baliabideak martxan jarritz eskubide asko urratzen dituzten heinean, Bizipozan korrontearen aurka goazen arren, utopiak oraindik badaudela eta etorkizun hobeak erdiestea funtsezkoa dela aldarrikatuz dihardugula. Ez ote dakite, Baumanek² Oscar Wilde aipatuz dioen bezala utopia dela garapen ororen printzipioa? Eta hitz egiten diguten *progresu* ekonomiko eta indibidualista hori ez dela utopia galduak konpentsatzeko alderdia besterik? Eta bai, ikusiko dugun eran, gizarte honek aurrerapausoak behar ditu, baina ez ekonomikoak soilik, baita sozialak ere: hots, garapen utopikoa behar du.

Horrenbestez, testu hau barneratzen duen ikerkuntza osatzeko, utopiko batek duela pare bat mende esan zuena hartuko dugu ardatz: *“bakoitzarengandik bere gaitasunen arabera eta bakoitzari bere premien arabera”*. Pentsalari horrexek adierazi zuen, mundua interpretatu baino eraldatzeko bidea hartu beharko luketela pentsamendu filosofikoek. Hala, beste pentsalaribatek erantzun polita bota zion: mundua eraldatu bai, baina horretarako, lehenago interpretatu egin behar da. Jakina, eraldaketa lortu nahi zuen filosofo horrek gizartea eta bere funtzionamenduak interpretatzeaz gain, eraldaketarako baliabideak jarri zituen. Bada gu, modu askozaz xumeagoan bada ere, horretan saiatuko gara, etorkizunean eraldaketa bat lortzeko asmoz, eskubideen lorpena ibiltzeko gogoz eta, bide batez, utopiak markatu dituen lorratzak jarraituz, COVID-19ak gureru ekarri dituen egoeretatik abiatu eta nolabaiteko gizarte-

¹ Tomás, M. (2006). *Utopia*. Ediciones Colihue SRL.

² Bauman, Z. (2010). *Tiempos Líquidos: vivir en una época de incertidumbre*. Tusquets editores.

egoera deskribatzen, alajaina. Ostera, transformazioaren eta lorpenen praxian abilenak elkarrekin, familiak eta *Bizipoza* barnean dauden haurrak baitira.

LANAREN NONDIK NORAKOAK

Hasi baino lehen, esan beharra dago burutu den lan honek SARS-cov-2 birusaren pandemiak *Bizipoza* egitasmoko familia edo elkarte ezberdinetako bizipenez hausnartzea eta bertatik ikasitakoa helaraztea duela xede. Hori dela eta, elkarte zein familiekin batera burututako ikerkuntza bat osatzeko hautua hartu genuen. Horretarako markatutako bideak elkarriketa irekiak eta test moduko bi galdetegi izan dira. Hala, *COVID-19* garaiko bizipen eta kontakizun mamitsuak jasotzeaz gain, *Bizipoza*ko eragileek –elkarte zein familiek– eskainitako datu kuantitatiboekin testuinguru bat sortzeko aukera izan dugu.

Lehenik, zazpi familia eta elkarte bat elkarriketatu ditugu. Alde batetik, *Afestta*, *Arnasa*, *Bihotzez*, *Gure Señeak*, *Hiru Hamabi*, *Pausoka* eta *Ulertuz* erakundeetako kide diren gurasoei egin zaizkie entrebistak. Bestetik, aldiz, hezkuntza-eremuko ikuspegi bat jasotzeko asmotan, *Seaskako Integrazio Batzordeko* arduradunak elkarriketatu dira, baina bertan izandako arazo teknikoek grabazioaren kalitate txarra eta horren ondoriozko informazio galtzea ekarri dute; hortaz, eskuz harturiko oharrez baliatu gara. Dena den, solasaldi hauei esker, hainbat bizipen lortzeko eta lotzeko aukera izan dugu. Hain juxtu, kontakizun horiek dira pandemiak eragindako zailtasunak lehen pertsonen konprenitzera eraman gaituztenak. Era berean, uste dugu, lan honetan zehar entrebista horietatik ateratako aipuak direla mami gehien gordetzen dutenak eta, funtsean, ikerketa hau kualitatiboki hezurmamitu dutenak. Testuinguruan apur bat sartzeko, aipaturiko elkarte eta egitasmoen deskribapen labur bat eskainiko dizuegu (alfabetoaren ordenean):

- ***Afestta* elkarte:** Tourette sindromea daukaten pertsonen eta bere familiak osatzen dugu. Sindromea bera gizarteratzeko helburuarekin egiten dute lan.
- ***Arnasa* elkarte:** Fibrosi Kistikoa duten pertsona eta hauen inguruko bizi kalitatea hobetzea helburu duen elkarte da.
- ***Bihotzez* elkarte:** Sortzetiko bihotz-kardiopatia duten pertsonen eta gurasoen laguntza eta informazioa eskaintzen dien erakunde da.
- ***Gure Señeak* elkarte:** Gaixotasun arraroa edo dimentsio handiko behar bereziak pairatzen dituzten hurrei eta bere familiei babesa eta laguntza eskaintzeko sortutako elkarte da.
- ***Hiru Hamabi* elkarte:** Jasotako garun kaltea duten adingabeekin lan egiten duen elkarte da eta euren bizi-kalitatea hobetzea du helburu.
- ***Pausoka* elkarte:** Behar bereziak dituzten haurren fisioterapia, logopeda, terapia okupazional eta psikologia beharrak asetzen dira. Haurren integrazioa lortu behar da euren ustez.
- ***Seaskako Integrazio Batzordea:*** Iparraldeko ikastoletan behar bereziei dagokienez, integrazioa bideratutako eskolako lan batzordea.
- ***Ulertuz* elkarte:** Bizkaiko Haur Gorren Familia eta Lagunen Elkarte da. Entzumen urritasuna duten hurrei eta beren familien hutsuneak betetzeko helburuarekin sortua.

Bigarrenik, bi galdetegi kuantitatiboren erabilera egin dugu, zeinak ikerketa honetarako espezifikoki sortu ditugun. Bata familiei bidali zaie eta, horrela, koronabirusak orokorki, harremanetan, familian eta hezkuntzan izan duen eraginaz galdegin zaie (84 erantzun jaso dira denera). Bestea, *Bizipoza*ko elkarte guztiei bidali zaie eta 35tik 28 erakunderen erantzunak jaso dira COVID-19aren ondorioz hartutako neurrien, esparru ezberdinetan izandako erronken eta etorkizunera begira duten esperantzen inguruan. Hala, bi galdetegiak eskura izanda, eremu batzuetan familien egoeraren arabera eman diren egoera anitzak ikusteko gauza izan gara; orobat, kasu batzuetan agerian gelditzen diren tendentziak eta egoerak behatu ahal izan ditugu. Gainera, lehen aipatu bezala, zenbait tendentziak elkarrizketak osatu, ideiak josi eta ikerketaren emaitzak justifikatzeko argumentu indartsuagoak eskaini dizkigu.

Jasotako datuak eskura izanik, kategoriatan banatu dira eta datu kualitatiboak eta kuantitatiboak ahalik eta gehien uztartzen saiatu gara gure emaitzak fidagarriak izan daitezen. Era berean, ateratako datuei eginiko interpretazioak erabili ditugu *Bizipoza* egitasmoko elkarte eta familia batzuek bizi duten egoera zaila izan dela ikustarazteko; bai osasunak zentroa hartu duen honetan hutsune berriak sortu direla argudiatzeko. Hain zuzen, horren isla da ondorengo hiru zatitan bereizten den txosten hau:

1. **Emaitzak eta gogoetak** atalari dagokionez, esan, zatirik mardulena dela eta hau bost zatitan banatzen dela: birusak sorturiko beldurrari atxikitzen zaion bat; harremanetan eta sozializazioaren gaian barneratzen den beste bat; ondorengoak hezkuntzaren esparruaren lanketa egiten du; laugarrena, administrazioaren eta gizartearen eraginean sartzen da; eta azkenak elkarte eta familien lanak zein ekimenak aztertzen ditu. Hau osatzeko galdetegietatik ateratako informazioaz baliatu gara, baina oinarria familien bizipenetan dagoela islatu nahi izan dugu.
2. **Ikaspen eta aurrera** begirakoetan zortzi ikaspen edo aurrera-begirako zerrendatu ditugu. Horietako bakoitza elkarteek eman dizkiguten pistetatik atera dugu, bibentzia gaitzen artean hainbat prozesu jaso eta ikaskuntzak jaso baitituzte.
3. **Eskubide-egoeraren bilakaera** aztertzerako garaian, hiru itun ofizialetan oinarrituko gara, hala, marko legal eta juridiko baten gainean sartuko ditugu gure ikerketaren emaitzak. Era berean, nolabait, dretxoaren bilakaeraren nolakotasuna ikusiko dugu.
4. **Konklusioetan** aurretik egindako guztia laburbiltzen saiatu gara. Helburu horrekin elkarteek egoera pandemikoa amaitzen denean egongo den egoeraren bueltan eman zizkiguten erantzun batzuk erabili ditugu.

EMAITZAK ETA GOGOETA

Atal honetan elkarteekin batera eginiko analisitik irtendako datuak ageri dira eta emaitza horiez gogoeta eginda, *Bizipoza* elkartetik interpretazioak burutu ditugu. Gogoeta horiek bost zatitan sailkatzeko hautua hartu dugu: lehena, ikarari eskainia, honek pandemian izan duen presentziagatik; bigarrena harremanen ingurukoa, elkartzeko izan ditugun zailtasunak direla-eta; hurrengoa, hezkuntzari lotua, haurrengan gakoa den eta eraldaketak eman diren

instituzioa delako; gero administrazioa eta gizartea behatuko ditugu; eta bosgarrena eta azkena, elkarte eta familien lanari eskainiko zaie.

1. Ikararen inguruko hausnarketa bat

Sarreran aipatutako Zygmunt Baumanek bere “Garai Likidoak” (*Tiempos Líquidos*³) liburuan adierazten zuen moduan, beldurrak eragin handia dauka gaur egungo gizartean. Areago, beldurrak kasu askotan gure bizitza baldintzatzen du eta pertsona bakoitzaren kontrola zein beldurraren aurkako borroka autonomia bultzatzeko ezinbestekoa da, baina baita paralizatzekoa eta administrazioek agintzen dutena esatekoa ere. Azken finean, arrisku baten aurrean aktibatu eta defentsa mekanismoak martxan jartzeko derrigorrezko erreakzioa da ikara, baina ezerosoa ere bada. Gauzak horrela, oso laburki, esandako pentsalariari parafrasia eginez, beldurrak elkarriketatuta ditugun pertsona batzuetan izan duen eraginaren nondik norakoak aztertuko ditugu.

Esan bezala, ikarak presentzia handia izan du gure elkarteetan eta ez da harritzekoa. Esaterako, elkartekide asko beren gertukoengandik eta familiengandik kezkatuta egon dira (%36,9); beste hainbat koronabirusak euren haurraren egoera emozional eta sozialean izan zezakeen eraginak izutu ditu (%29,8); zenbait familia-kide COVID-19ak haurraren osasun-egoeran izan zezakeen inpaktuaz arduratu dira gehiago (%14,3); eta beste batzuk krisi honek beren familiako egoera ekonomikoan izan zezakeen eraginaz kezkatu da gehien (%6). Jakina, gertatuko den horrek ezjakintasunaren buelta sor daitekeen sufrimenduari diogun beldurra azaleratzen da; arrotza den zerbaiten aurrean biluzik gaudenaren sentsazioa sortzen zaigu; informazio zaparradak dakartzan berri txarrek gure kontzientzia astintzen dute; eta, gainera, erabili daitezkeen eta merkatuan dauden segurtasun baliabide guztien berri izanda (garaiotan eskaparate handi bat ireki zaigu), hauek eskura ez ditugunaren jabe izateak, besteekin alderatuz seguritate gutxiago dugunaren edota zaugarriago garenaren pentsamendua ezartzen du gugan (hots, besteak lehenago kutsatuko garenaren ustea sortzen zaigu eta, gehitu, horrek jarrera indibidualistetan izan dezakeen eragina). Laburbilduz: garai ezbaitsuak izan dira eta, Baumanek dioen bezala, ziurgabetasunak beldurra esan nahi du.

Ildo horri tiraka doaz *Gure Señeak*-eko elkartekidearen hitzak, honela mintzo baita pandemiaren hasieraz: “*guk pandemia hau zetorrela entzun genuenean, bada, apur bat ikaratu ginen. Zeren eta, arnasketa-sistema jotzen zuen birus horren aurrean guk argi izan genuen egingo genuena zera zela: gure semea babestu*”. Berdintsua gertatzen da *Arnasa* elkarteko ama batek esan zigunarekin: “*Beldurtuta, jendea beldurtuta zegoen (...). Egia esan, bera ere [haurra] beldurtu egin zen, oso beldurtuta zegoen. Zera esaten zidan: zer gertatuko zait? Amatxo zer gertatuko zait?*”. Eta beste hainbeste gertatzen da bihotz kardiopatia duen haurren gurasoekin, beren alabarena “*gaixotasun larritzat jotzen denez, pandemiaren hasiera beldurgarria izan zen. Izan zen... beldur izugarria, izugarria*”.

Hala, segurtasunak, bai instituzioetatik, bai gizartetik hartu duen zeresana erraldoia izan da. Pandemiaren aurretik eskubide-gizartea eta ongizatera bideratutako instituzioen indarra

³ Bauman, Z. (2010). *Tiempos Líquidos: vivir en una época de incertidumbre*. Tusquets editores.

jada murrizten bazihoan eta kontrolerako zein segurtasunerako baliabideak eremu gehiagotan aurkitzen baziren, izurriak areagotu egin du kontrol hori eta baita kontrolpean egoteko gizartearen onarpena ere. Finean, Aiarza Azurzak (2020)⁴ dioenez, Gertakari batzuek eragindako *beldurra* maiz erabili izan da politikagintzan (guda terminoa ere sartu digute, kaleak militarizatu dira...) eta, gainera, askotan eskubideak murrizteko ere erabili da. Osasunaren defentsa dela medio, familiei eragin dien salbuespeneko neurri asko etorri dira. Azken batean, Hobbes-ek zioen bezala manipulagarriago gara beldurra sartzen digutenean; gainera, maiz askotan estatuari begira gelditzen gara, beren aginduaren esperoan.

Ondorioz, *Bizipozako* elkarte ezberdinetan aurkitzen ziren elkarte askotan zerbitzu batzuk murriztu dira eta, batzuetan, ulertzekoa den moduan, bertan behera geratze horiek baietsi egin dira (kardiologoak, mediku zerbitzuak, terapiak, fisioak, etab.). Azken honen adibide gisa jar dezakegu *Gure Señeak*-eko kidearena: *“kontsulta batzuk telefonoz egin ditugu, beste batzuk bertan behera geratu dira, eta batzuetan guk eskatu dugu kontsulta bertan behera uztea, zeren ez genuen eraman nahi, egoera ez zen arrisku hori pasatzako modukoa”*. Baina, aldi berean, birusa egoeraren baitan sortutako segurtasun neurriek eragindako beldurrak mindu duenik bada, eta hor barneratuko genuke *Hiru Hamabiko* kidea, ostera ikusiko dugun moduan, bere alabarentzat fisioterapia saioak ez izate horrek eta neskatoaren egoera okertzen ikusteak beldurtu eta erabakiak hartzea eraman baitu.

Hori gutxi balitz, badirudi horrelako sentsazio bat sortu zaigula: *gizarteaz ezin gaitzezke fio, honek kutsatu egiten baitu; jendartea maitatu bai, lagundu ere bai, baina ezin gaitzezke fidatu*. Hori dela eta, familia, elkarte, edo pertsona bakoitza bere eskubideei eta ongitasunari autonomoki erantzuteko rola hartzera izan da bultzatua. Ondorioz –Han⁵-en ideiak kontuan hartuta– auto-errealizazio murgildu dira (edo gara), non indibiduo, elkarte zein familiek, babak beren eltzetik ateratzera behartuak izan diren eta bakoitzak bere interesen edo premien arabera *auto-esplotatua* izan den. Azken batean, instituzioek ez dute eskubideak betetzeko gaitasunik erakutsi, horrek, babesgabe utzi gaitu, eta gauzak etengabe aldatzen zihoazen unean (gogoratu ezjakintasuna beldurra dela) albokoen zein norberaren egoera defendatzera eraman gaitu. Noski, lan honetan zehar ikusi eta ikasiko dugun eran, eremu ezberdinetan hartutako erabakiek beste traba eta dretxoen auto-urraketa batzuk ere ekarri dituzte.

2. Harremanak pribilegio bilakatuta

Gurean, beti nabarmendu dugu harremanek suposatzen duten pribilegioa eta kasu batzuetan erlazioak izateko izan ditugun trabak. Gainera, 2020an egindako galdetegietan ederto ikusi zen, *“inklusioko” Bizipozan* zuen presentziaz jakinik, jendartean loratzen diren erlazioak zeinen garrantzitsuak diren haurrek, gerora, eskubide oparotasunaz gozatzeko, gizartean parte hartzeko eta, funtsean, ongizate eta bizi kalitate integrala lortzeko. Era berean, ohartuak gaude harreman gabeziak edota erlazio zitatek eskusioan bultza dezaketela. Eta, horrez gain, inklusioarena haurrak politikoki (administrazioa, premien erantzuna, eskubideak, etab.) eta

⁴ Aiarza Azurza, U. (2020). Covid-19^a, mundua eta gu. TM. Lab Euskal herrigintza Laborategia (Koord)-ren *Covid eta ondoren zer?-en*. Elkar. (31-38 orr).

⁵ Han, B.Y. (2017). La sociedad del cansancio [Bigarren edizio luzatua]. Helder.

ekonomikoki (finantzaketak, diru-laguntzak, etab.) dituen baliabideekin hertsiki lotuta dagoela azpimarratzea komeni da; eta, lehen, horren jakitun baginen ere, COVID-19ak are ebidentzia gehiago eskaini dizkigu.

Ez da harritzekoa *Bizipozako* familiek eragin gehien nabaritu duten eremua harremanena izan izana, familia gehienek ongi adierazten diguten eran, neurri mugatzaileek eta beste neurriek ardurak gehien eragin zuten eremua baita (%41,7ek): hau da, eremu soziala. Hain juxtu, emozionalean, fisiko-fisiologikoan, informazio aspektuan eta erantzun zuzenak baino pisu gehiago izan zuen. Hori gutxi balitz, familien gehiengo handi batek dioenez –hau da, %77,4entzat– eragin hori negatiboa edo oso negatiboa izan da.

Ez da ahaztu behar familia askotan bizi izan diren egoerak zailak direla. Posible da, eta elkarrizketatu batzuk hala esan digute, beren seme-alaben osasun-egoera dela-eta euren harremanak ere murriztu behar izan dituztela eta sozializazioaren hainbat aspektu eten egin direla. Esate baterako, *Arnasako* elkarteak familia bateko kideek esaten digutenez beren seme-alabek eskola bakarrik erabiltzen zuten harremanak egiteko, baina harreman mota gehiagoren beharra azpimarratzen dute: *“Haurrekin berdin, beraien bizitza soziala ikastolan dago. Hori eta gero, jada ez gara joaten parkera (...) Gu saiatzen gara, haurrek beren espazioa dute eskolan lagunekin egoteko, pozik datoz, baina bai, behar da... behar da...”* Aldiz, *Arnasako* kideak, harremanak egaixotasunen bat duten gazteengan sor dezakeen beldurraz eta honek duen eraginaz egiten digu berba: *“Eta pentsatzen duzu, berak 15 urterekin ezin duela, joan behar duela lagunekin ez dakit zer egitera... Aurretik ere oso arduratsua izan da bere gaixotasunarekin, baina COVID-19agatik beldur gehiago dauka eta...”*

Aintzat hartu behar da, elkarrizketatu ditugun *Arnasako* eta *Bihotzezeko* kideen seme-alabengan COVID-19ak izan duen eragina, berez, ez dela fisikoa, osasunezkoa edota fisiologikoa izan; nahiz eta beren arrisku handiko egoera dela-eta, gehien arduratu dien alderdia horixe izan den. Paradoxikoki, osasun egoerak sor zitzakeen ondorioez jabetuta, neurri berriak hartu behar izan zituzten eta, azkenean, alde bateko salbazioa zena beste eremu batzuetako sufrimendu bilakatu da: eremu sozialeko zailtasuna, hain juxtu. Galdetegietako erantzunak har ditzakegu etsenplu gisa, erantzun zuten familien %31ek bakarrik baitzioten beren seme-alabek legezko neurrien baitan lagunekin normalki elkartzeko joera zutela. Aitzitik, gainontzakoek era batera edo bestera beren elkarguneak edo elkartzeko erak mugatu behar izan dituzte: eskolara mugatu dituzte harremanak (%23,8); eskolaz gaindiko jardueretan parte hartzen dute, baina neurri zorrotzak badituzte (%19); sare sozialetara mugatu dituzte harremanak (%15.5); edo, apalki, ez dute harremanak egiteko espazio segururik (%7.1). Datu hauek ematean, egoera bereziak bizi ez dituzten haurren gehiengoak %31 hori bezala erlazionatzeko aukera dutela hartu behar dugu kontuan; aitzitik, *Bizipozako* kideen kasik hiru laurdenek era bateko edo besteko harremanak egiteko mugak izan dituzte. Horrek, noski, garapen sozialean, ongizate emozionalean, inklusioan eta jolaserako eskubidea bezalako dretxoetan eragin negatiboak izan ditu.

Beste egoera tirabiratsu bat “osasunak”, Han-ek (Nietzsche-ren Genealogiaren Morala parafrasia eginda) “Jainko berria” bezala izendatzen duenak, ebakuntza baten ondoriozko garun erasana pairatzen duen umean izan duen eragina da (*Hiru Hamabi* elkartekoa da elkarriketatu). Izan ere, osasunaren alde egin den kanpaina global honetan, familia horretako alaba erantzun mediko eta fisiologiko gabe gelditu izanak bere egoera fisikoa okerrarazi zuen itxialdian zehar (3. eta 4. puntuetan sakonduko dugu). Hortaz, osasun orokorraren alde egin da, baina, horregatik, bere osasun egoera espezifiko alboratu da. Bada, horrek, bere gaurko eta etorkizuneko harremanetan eragin du, bere amak horrela baitio: “*Nik inklusioa landu nahi nuen, eta horregatik Lizarra Ikastolan zegoen, Urtxintxa gelan, ekintza asko egiten ziren hau lantzeko, eta derrepente, aurkitu ginen edo Aspace, edo etxean hiltzen minez.*” Beraz, orain, COVID-19an instituzio jakin batzuetatik eman den erantzun kaskarragatik, eskolako berdinkideetatik urruntzera, familiako harremanen beherakada bat jasatera, eta inklusio sozialean atzera-pausuak ematera behartua izan da. Nolabait, bazterketak bultzatu dira.

Baina tira, geratzen zaigun kontsolazio bakarra Žižek-ek dakarrena da, zeinak *IZUrriA! COVID-19ak mundua astindu du*⁶ liburuan zera dioen: paradoxikoki eta tamalez, garai pandemiko hauetan, benetan behartzen gaituzten pertsonen maitasuna adierazteko [izan] dugun modu bakarra beraiegandik urrun mantentzea, besarkadak ez ematea, bisitak murriztea [izan] da. Bada antzerako jarrerak hartu behar izan dituzte gurasoek zentzu horretan.

Ezin zaigu ahanzi harremanek badutela beharrezkoa den beste alderdi bat: elkarrekintza. Batzuetan ez dugu kontuan hartzen interakzioaren beharrezkotasuna, baina igaro ditugun garaietan komunikatzeko baliabide berriak ezagutu eta erabili baditugu ere, kasu batzuetan, musukoa bezalako legezko neurriek eragin handia izan dute pertsonen sozializazioan. Finean, pertsona batzuei beharrezkoak zaizkie aurpegiko zeinuak ezagutzea ahalik eta harreman positiboak eraikitze eta, gortasuna edo entzumen urritasuna dutenei berriz, ezpainak irakurtzea ezinbesteko zaie. Hona hemen gertatutakoaren pare bat adibide:

Gure semeak bere baitan egoteko joera du (...) eta musuko batek egiten duena da joera hori, bakartzeko eta isolatzeko joera hori, areagotu. Eta informazio optikoa entzumenezkoa baino hobeto kudeatzen duenez, besteen aurpegiaren espresioak ikusi ezin dituenean, bada informazio piloa galtzen du eta egoera asko ez ditu ulertzen. (...). Harremanak egiteko duen erreminta nagusia aurpegia da eta besteen aurpegiak ikusi behar dituen bezala, besteek ere bere aurpegia ikusi behar diote. (*Pausoka*)

Musukoa oso oztopo larria da: alde batetik, ahotsa asko iluntzen du (...); bestetik, ezin ditu ezpainak irakurri, eta beretzako oso inportantea da, ze horrekin galtzen du komunikazioaren portzentaje handi bat (...); eta bestetik, aurpegiko espresioa bera, ez? horrek ere ematen du informazio asko, emozioak begietan bai, baina ahoan ere ikusten dira: irribarrea... Azkenean desabantaila handi bat da musukoarena. (...) Eta gero, entzumen urritasuna duten haurrentzat oso garrantzitsua da harreman fisikoa: besarkadak ematea, ukitu ahal izatea... Hori oso garatuta

⁶ Žižek, S. (2020). *IZUrriA! Covid-19ak mundua astindu du*. Txalaparta.

izaten dute, beraz, beretzako, lagunekin eta elkartzen denean ezin ukitzea, ezin laztantzea... bada oso gaizki eramaten du. (*Ukertuz*)

Bada, ordea, itxialdi egoerek suposatzen duen harreman gabeziak eraginda eroso sentitu denik ere; kosta zaiena “normalitatera” itzulera da. Azken batean, sozializazioa gaitz suertatzen zaien pertsonak daude eta beren ekimena pertsonarteko harreman horiek lantzean oinarritu ei da. COVID- 19aren pandemiaren ondorioz harreman-guneek (kirolak, eskolaz kanpoko ekintzak, etab.) behera egin dutenez, harremanetan zeramaten garapena eten eta kasu batzuetan okerrera egin du. Honela dio entrebista egin diogun *Afestta* elkarteak:

Harremanetan hobetzen ari zen, baina atzera egin zuen. Oso gustura egon zen [itxialdian], baina atzera egin zuen. Beste baten batek ere berdina esan dit. Beraiek beren logelan gustura egoten dira, beren burbuilan, baina ez da komeni zaiena. (...) Konfinamendua ondo eraman zuen. Baina gero udan, kasik etxetik bota egin behar genuen: ez zuen atzera nahi. (...). Kirolarekin –esku baloian ibiltzen da– oso ondo zihoan, baina egoera honekin atzerapausoak eman ditu[neurri ezberdinengatik kirolak ere bertan behera gelditu baitira]

Aditu eta soziologo askoren aburuz, gizarteratzean eman diren aldaketa guzti horiek, aurrerantzean ondorioak izan ditzakete. Riordanek (2020)⁷ oso zuzenean egiaztatzen du hori: “sozializazioan aldaketak egongo dira”. Teknologia gehiago erabiltzera ohitu gara, beraz, nahiz eta normaltasun batera iritsiko garen zail egingo zaigu aurretiko kontaktu-puntura ailegatzea. Bulegoko lana eta eskola ere hazi egin daiteke eta aurrez-aurrekoak gehiago murriztu, beraz, normaltasunean ere hezkuntza zein interakzio sozialak online modukoak izan daitezke eta, horrekin batera, lan- eta hezkuntza- guneek sozializatzeko edo harremanak sendotzeko zuten ahalmena murriztu daitekeela errealitate bat da. Horrenbestean, Bizipozak, bertako elkaratek, familiek zein haur eta gazteek, bertan oraindik eta gehiago eragiten jarraitu beharko dute eta, akaso, egiten hasi diren eran, bide berriak hartu beharko dituzte. Era berean, baliteke, bai *Bizipozak*, bai bertako erakunde ezberdinek, eskolak eta eskolaz-kanpoko hainbat espaziok sozializazioaren arloan utz dezaketen hutsunea tapatu behar izatea.

3. Hezkuntza-sistema: premia bereziak dituen instituzioa

Hezkuntza bereziaz hitz egin ohi da *Bizipozako* haurren hezkuntza premiez ari garenean. Maiz adierazi izan dugu ez garela gu bakarrik laguntza espezifiko batzuk behar dituztenak, ezpada jendarte oso bateko indibiduo bakoitza. Halaber, askotan adierazi izan dugu hezkuntzak “behar berezien” etiketarekin eskuak askozaz errazago garbitzeko joera duela (areago pandemia garaian); horrelako zerbait argudiatzen dute: *behar bereziak dituenek, berariazko erantzunak eman behar zaizkionez... askoz zailagoa da*. Kontua da, hezkuntza sistema akademikotasunean oinarritzen dela, ez, aldiz, pertsonen ezagutzan; ondorioz, akademikotasunean hainbat laguntza behar dituenari esaten zaio “premia bereziak” dituen haurra dela, modu horretan

⁷ Riordan, S. (2020). Covid-19^a katalizatzaile gisa. TM. Lab Euskal herrigintza Laborategia (Koord.)-ren *Covid eta ondoren zer?-en*. Elkar. (11-20. orr.)

beste esparru batzuetan zailtasunak izan ditzakeena alboratuz. Klaseak jarraitzeko aukera baduzu, gaitz erdi.

Beraz: denok behar bereziak eta bereziak baditugu, espezial al gara benetan? Agian tasunak, ezaugarriak, identitate-zeinuak... dira. Akaso normala da berezitasunak izatea (hots, berezi izateko gaitasuna). Ez ote, orduan, hezkuntza sistema bera, hain zurrun, hain perfektu eta hain jantzi... izatea behar bereziak dituen?

Buelta gehiago eman gabe, esan nahi duguna COVID-19ak hezkuntzari erronka bat jarri, hasiera batean uste zituenak baino berezitasun gehiago topatu eta erantzuteko ez-gai izan dela da. Berdintsua da guk jasotako testigantzek esaten digutena, beraz, agian, norbaitek esku hartu behar du hezkuntza sisteman; ikusten denez, denon tasunetara egokitzeko trebetasun-eza gero eta nabarmenagoa baita, erantzunak orokorra izaten jarraitu baitu nahiz eta premia berriak sortu diren:

Konfinamendu garaian askoz nabarmenagoa izan zen, baina, nire inpresioa izan zen Hezkuntza Sistema ez zegoela prest ez ezintasuna duten pertsonentzat, ez orokorrean (...) Zeren, irakasleak oso bakarrik utzi zituzten. (...) Orduan, hutsune digitala oso nabarmena izan zen, ez? (*Ulertuz*)

Bestalde, hezkuntza sistemak itxialdian zehar hartu zuen norabideagatik galdetzerakoan, familien %29,8ek besterik ez diote beren seme-alabei eman beharreko erantzuna eman diela. Edonola, jakin behar dugu datu kuantitatiboek ez dutela guztia argitzen, izan ere, elkarriketatutako familia batek zioenez, hezkuntza erantzuna –eta elkartekoa (kasuan *Pausoka*)– oso ona izan da, baina egia da, gurasoek erantzun hori ona izan zedin abisua jo behar izan ziotela eskolari. Horrela adierazi zigun *Pausokako* kide den hauraren amak:

Irakasleak beste haurrei lanak eta abar bidaltzen zizkion eta konfinamenduan zegoenean bost urteko gelan zegoen. Baina bere garapen maila ez da bost urteko haur batek izan dezakeen garapen maila bera. Orduan, hasieran bidaltzen zuten lana orokorra zen, baina horrek guri ez zigun ezertarako balio. Ni irakaslea izanik, bidaltzen ziguten hori moldatu egiten nuen eta beretzat zerbait prestatzen saiatzen nintzen. Halere, pentsatzen nuen ardura hori eskolak hartu behar zuela beregan, ez? (...) Orduan, eskolari egokitutako materiala bidaltzeko eskatu genion. Guk, azkenean, muntatu dezakegu guk ikusten dugunaren arabera, ez? Beraien lana da, beraien profesioa, beraiek dira profesionalak eta, beraz, hori egin dezaketenak. Hori eskatu genuen eta oso ondo erantzun ziguten. Ba begira, gure semeak ez du idazten eta ez du arkatza trazatzen; bada hori egin beharrean aurkitu marrazki bat eta egin koloreekin beste gauzaren bat. Bada bueno, egin behar ziren ariketak moldatuta.

Aitzitik, *Bizipozako* gainerako kideek hainbat kalte nabaritu dituzte eskoletatik jaso duten erantzunagatik. Horra ateratako datuak:

1. Haurren beharrei erantzun zaie, baina ez besteei bezain beste eta halaxe diote askok (%21,4). Bertan sar genitzake klaseak online izategatik gauzak okertu zaizkien pertsonak; esate baterako, *Afesttako kide den amak horrela esan zigun: “Gero klaseak online egitea batzuentzat oso gogorra izan da. Atentzio gehiago behar dutelako. Eta noski, etxe batzuetan gurasoak egon dira eta beste batzuetan ez (...) orduan bakarrik gelditzen ziren eta zailtasunak dituzten haurrentzako klaseak askozaz ere zailagoak”.*
2. Aurrekoarekin lotuta, badira errekurtsio digitalen mugen ondorioz edo hezkuntzak behar zuen erantzuna eman ez dielako, gurasoek esku hartu behar izan dute kasu batzuetan (%17,9). Kasu honen baita gelditzen dira oinarrizko hezkuntza jasotzen ez duten haur eta gazte asko. Esate baterako, fisioterapia, horren etsenplu dugu *Gure Señeak*-eko entrebistatua: *“Gure lehenengo pausoa eskolara ez bidaltzea izan zen (bueno, bera eguneko zentro batera doa) (...) nik proposatu nion ea bere fisioarekin bideo deiren bat egin nezakeen eta niri jarraibide batzuk emateko”.*
3. Hezkuntzak bere helburuak lortu ez dituela eta gurasoek haur edo gazteei lagundu behar izan dietela adierazten duenik ere bada (%13,1). Honen harira, gogora dezagun aurretik aipatu dugun *Pausokako* kidearen aipua, jakin badakigun arren gerora egoera hori hobetu zela: *“hasieran bidaltzen zuten lana orokorra zen, baina horrek guri ez zigun ezertarako balio. Ni irakaslea izanik, bidaltzen ziguten hori moldatu egiten nuen eta beretzat zerbait prestatzen saiatzen nintzen.”*
4. Batzuek ezin izan dituzte programa edota erreminta digitalak erabili baliabide gabeziagatik, erabiltzen ez jakiteagatik edo egokituta ez edukitzeagatik (%9,5). Izan ere, arrakala teknologikoa ez da ekonomikoki eta materialki baliabide gutxien zituzten pertsonetan bakarrik ematen, posible da, pertsona batzuek normalki baino baliabide gehiago behar izatea erantzuna jasotzeko edo, ximpleki, beren gaitasunak direla-eta, tresna digitalak erabiltzeko oztopoak izatea⁸. Hori gertatu zaie, *Ulertuzeko* kideari esate baterako; nahiz eta baliabide guztiak izan, irakaslearen zuzenean kokleako inplantera ailegatzeko gailu barik ibili baitziren itxialdiko hezkuntza jasotzen: *“Adibidez, entzumenak bidaltzen zizkieten entzuteko eta, egin behar genuena zen, nik entzun eta erreplikatu, zeren umeak ezin zuen ulertu jasotzen zuena (...). Grabatutako gauzak oso gaizki entzuten dituzte.”*

Beraz, %64,3ren kalitatezko hezkuntzarako eskubidea ase-gabe gelditu bada, argi gelditzen da horrelako egoera baten aurrean –eta Žižeken ustez hau ez da hasiera besterik⁹– eskola batek edota hezkuntza sistemak ikasleriari erantzun nahi badio prestatuago egon behar duela.

⁸ Cáceres-Muñoz, J., Jiménez Hernández, A. S., & Martín-Sánchez, M. (2020). Cierre de escuelas y desigualdad socioeducativa en tiempos del Covid-19. una investigación exploratoria en clave internacional. *Revista Internacional de Educación para la Justicia Social*, 9(3), 199-221.

⁹ Filosofoak dioenez, krisi honek veste hainbat krisi globalen aurrean harrapatu gaitu, klimatikoa eta migratorioa esaterako, beraz, pandemiarena bapatekoa izan bada ere, hainbat alorretan egoera ez-ohikoak biziko ditugula aurreikusten du.

Beno hori nahiko agerikoa da. Askok adierazi dutena zera izan da: ulertzekoa dela hezkuntzak horrelako egoera bati aurre egiteko zailtasunak izatea; denok harrapatu gaituela bat batean; ez zuela inork aurreikusten; ez dela denbora egon aldizkatzeak aurkitu eta martxan jartzeko; irakasleak prestatzeko eta premia digitalak zituzten haurrak materialki eta formatiboki ezin ase ibili direla; eta abar luze bat. Baina jakin badakigu horrelako etxeratze edo konfinamendu egoerak ez direla berriak, aurretik, *Bizipozako* kideengan eskola-absentismo behartua ikusten baitzen (2020ko ikerketan atera zen gai hori): gaixotasuna zuten haurretan, bidaia egin behar izaten zituztenetan eta ospitaleratzeak maiz izaten zituzten kasuetan. Beraz, ikastetxeek aurretik etxetik hezkuntzan trebatzeko aukera izan dute, baina askotan interes kontua izan ohi da; hau da, pandemian ikusi duguna: gehiengo bati erantzuten zaiola esatea (askotan hala ez den arren).

Gehiago esan dezakegu: absentismo egoerak, gaur, “normaltasun berri” deritzon egoeran hasi dira ugaritzen. Zeren, elkartetako kide batzuekin izandako hizketaldietan argi esaten digute beren seme-alabak ikastordu dezente dabilzala galtzen eta, nahiz eta osasun zentroetatik irakasleak etxeetara joaten diren, hainbeste klase galtzeak beren ibilbide akademikoan negatiboki eragin du.

Irakasleak etorri izan dira etxera. Ez ikastolakoak, baizik eta laguntzazkoak, etxekoak. (...) Eskolara ordu batzuk joaten hasi zen, baina gero lagun batzuek positibo eman zuten, andereñok ere bai eta, orain, on-line, etxean egon dira klaseak hartzen. Orain gertatuko dena da, besteak ikastolara joaten hasiko direla, baina klaru, gure alaba oraindik ez. Ez dago oso ondo: lehengo astean sukarrarekin egon zen eta infekzio nahiko zakar dauka, eta... klaru, momentu honetan ezin du joan. Nahiz eta beti negatibo eman, ez da oso fidagarria. Gertatzen dena da ez dakidala jarraituko ote duten online klaseekin. Eta bera ere kezkatuta dago, zeren DBH 4 amaitu behar du, azterketak... bigarren ebaluazioa ere galdu du, ez zioten azterketarik egin besteen erritmoan joan ez zelako... Eta orain kezkatuta dago, ea zer esaten diguten. (*Arnasa*)

Halere, hasiera batean hezkuntza etxean jasotzeko aukera izan ez zutenaren konstantzia ere badaukagu, baina elkarteen esku-hartzearen poderioz gauzak erdietsi zituzten. Urrutira joan gabe, *Bihotzez* elkartetik irten zen beharrezko ekimenak, Nafarroan bihotz-kardiopatia zuten haurren hezkuntza-eskubidearen urraketa saihesteko balio izan zuen; hona euren esanak:

Badaude haur batzuk, kardiopatia oso larria dutenak, eta horiek etxean gelditu dira, kardiologoek gomendatuta. Eta ezin izan dute ikastetxera joan (...) Hor arazoak egon dira hasieran, ba horrela ez? Hemen EAEn ondo, irakasleak etxera etortzen zirelako; baina Nafarroan adibidez, borroka apur bat egin genuen, eta azkenean ere bai. Baina horrela: haur batzuek urtebete daramate etxean. (...) Eta gero badaude guraso batzuk, beren haurra beldurragatik ikastetxera eramaten ez dutenak.

Ikastetxera eramaten ez duten pertsona horien artean egon daitezke *Hiru Hamabiko* gurasoak. Nahiz eta denok ikaratu garen, ez dago zalantzarik familia batzuei ikara sentsazioa gertuago izan dutela beren egoeragatik (*ikus 1. puntua*). Hala, eskolara edo kasu honetan

eguneko zentrora joateko aukera alboratu du *Hiru Hamabiko* familiak, jakinik –hori bai– beren semearen postua kontserbatuko zutela: *“Guk oraingoz ez bidaltzea pentsatu dugu. Gaur egun gure semea txertatuta dago, halere, ikusi nahi dugu apur bat, noraino heltzen den babes hori. (...) Gero, aldunditik –zeren aldunditik kudeatzen dituzte plaza horiek – bai esan zigutela, semeari plaza manteduko ziotela (...) Hautatu genuen ez bidaltzea eta horretan gaude.”*

Baina ez da hor amaitzen *Bizipozako* haurrek hezkuntzarekiko bizi [izan] duten egoera tirabiratsua. Izan ere, zenbait kolektiboetako kideek zailtasunak ikusi dituzte musukoaren eta, batik bat, musuko gardenen homologazio-ezaren erruz. Noski, alderdi honetan gehien nabarmentzen den kolektiboa gortasuna eta entzumen urritasuna duten haur eta gazteak barnebiltzen dituen da; ikerketa honen kasuan, *Ulertuzeko* kideek ordezkatzan dutena. Hona hemen beren testigantza bat: *“urtebete pasa da eta ez daukagu musuko zehar-argi bat homologatuta. Orduan, eskolan, andereñoak ezin ditu musuko zehar-argiak erabili. (...) orduan, ba beno, milaka haur daude gaur ezintasun horrekin: ezin dituzte ezpainak irakurri, ezin dituzte aurpegiko espresioak ikusi”*. Hori dela eta, ikasle gor anitzek lehen esandako harremanetan ez-ezik, eskolan eta beren garapen akademikoaren oparotasunean eta aukera berdintasunean zailtasun ugari ikusten dituzte. Baina ez dira musukoagatik ukitutako bakarrak, *Pausokako* kide denak ere beharrezko ikusten baitu hezkuntza bere semeak musukorik ez izatea, berak harreman eta interakzio sare gisa ulertzen baitu hezkuntza:

Eskolan 5 urteko gelan dago eta bertan, zorionez, ez du musukorik eraman behar (...) Berak 6 urte dituenek ilaran musukoarekin egon behar du, eta isolatzeko aukera hori ematen dionez, batzuetan ez du kendu nahi, baina irakasleari kentzeko esaten diogu. Harremanak egiteko duen erreminta nagusia aurpegia da.

Hori bai, maskarari atxikitako ideia horiekin kontu handia izan behar da, zer *Bihotzez* elkarteko parte den amak eskolarekin lotuta gertakariaren bat kontatu digu. Dioenez, familiako haurra eskolara joateko eta bere hezkuntza-eskubidea ahalik eta gehien bermatzeko nahiko zorrotz jokatzan dute neurriekin: *“FPP2 eramaten dute gehiago babesteko, baina noski, egun osoa horrekin... beren Arnasari eta bihotzari gehiago kostatzen zaie”* eta, beraz, oso osasungarriak ez diren neurriak hartzen dituzte (garbi eta musukoa kenduta arnastea ondo datorkielako kardiopatia duten haurrei), nahiz eta premiazkoak izan. Bada, elkarriketatu berberak aipatu zigun musukoaren aurka zegoen guraso batek maskara eskola jardueretatik kentzeko egin zuen proposamena aipatu eta ondorengoa esaten du: *“Musukorik gabe bai, baina agian ondokoak minbizia du eta gaizki pasako du, ezta? Ez dugu pentsatzen: gure bizitzan pentsatzen dugu eta kito”*. Eta honekin esan nahi da, elkarte-kide bakoitzaren eskubideak betetzeko gauza bat datorkiola ongi, baina *Ulertuz*-ko kideek dioten eran, agian soluzioa musuko zehar-argiak ziren; hala denen eskubideak beteta egongo bailirateke.

Konkludituz, esan *“Taldeari eman zaio[la] erantzuna, ez zitzaio[la] erreparatu pertsonari. Gero, gurasoekin egon ginen eta babesgabetasun sentazio hori orokorra izan zen”* (*Pausoka*). Eta gehitzearren, esan, *Hiru Hamabi* elkarteko elkarriketatuaren alaba beraiek aukeratutako hezkuntza-sistematik at gelditu dela hezkuntza-sistema orokorrak eman dion erantzun murrizagatik. Are: hezkuntzak izan zuen etenaldiak eta jartzen ari den trabek eraginda, haur askoren garapena beste haurrena baino motelagoa da (%26,2), eten egin da (%11.9), edo

atzerapausoak eman dira (%21,4)¹⁰. *Seaskako Integrazio Batzordeak* dioen bezala, kasu askotan, eta batik bat aditasuna mantentzeko zailtasuna duten haurretan garapenak atzera egin duela ikusi dugu, eta horien artean sar ditzakegu *Afesttako* kide batzuk (denak ez diren arren).

Honekin, azpimarratu nahi dugu, hezkuntza sistemak askotan –Ivan Illich (2020)¹¹ pedagogoak gizartearen *deseskolarizazioari* buruz idatzi zuenean esan zuen moduan– eskolari hezkuntzaren monopolioa esleitzen diola, sistema soziokultural eta ekonomikoa jarraituz, beregain dagoen gizarte kontsumista, indibidualista eta lehiakorra sortzen du. Horretarako, “gai direnak” eta “gai ez direnak” sailkatzen dira hezkuntzatik eta, gerora, gizartean bakoitzak duen baliagarritasuna titulu baten bidez argudiatzen da. Bada, gure emaitzen arabera, COVID-19ak hezkuntzaren onila gehiago estutu du, jendarte jakin batek eta hizkuntza jakin bat babesten duten erakunde batzuek (*Seaskako Integrazio Batzordekoek*) ez baitute nahikoa baliabide izan beren haurrei nahi izango luketen bezala erantzuteko. Zailtasunak dituztenak gizartetik at uzteko aukera perfektua egokitu zaie, egia esan. Hori guztia medio, ez da besterik geratu eta elkarte batzuek hezkuntza-funtzioak handitu behar izan dituzte, eskola-sistemari hezkuntzaren monopolio hori lehiatu nahian. Baina gure ustez, haratago doaz *Bizipoza* edo bertako erakundeek zentzu honetan dituzten egin beharrak, gizartea hezten jarraitu behar baitute, hezkuntza sistemako ikaskuntzez eta balioez gain, balio sozialak ezinbestekoak baitira.

4. Administrazioa eta gizartea gaitzak jota: non dago ongizatea?

“Ongizate Estatua” asko entzuten da. Era berean, administrazio zein erakundeetatik babestu beharreko gizartearen ongitasuna eta eskubideak denen ahotan daude. Azken finean, paper gainean, entitate horiek dira jendarte osoaren dretxoak defendatu eta asebate behar dituztenak, baina esaten den bezala, orriak dena jasaten du. Orobat, gizarteko kideok hainbat eskubidez gozatzeko aukera dugun heinean, besteen dretxoak errespetatu eta ez urratzeko betebeharra daukagu. Bada behin eta berriro aipatzen gabiltzan *Bizipoza egitasmoa: Euskal Herriko haurren eskubideak gizarte eta hezkuntza ikuspegi batetik* izeneko ikerkuntzan ondo adierazten zen, instituzioetatik zein gizartetik *Bizipozako* elkarteetako hainbat haur, gazte eta familien eskubide urratzen zirela, aldiz, elkarte eta familiek hartu behar izaten zutela jendarteak zein estatu-erakundeek uzten zuten zulo hori estaltzeko ardura. Bada, guk, bagenekien COVID-19a ailegatu aurretik administrazioa eta jendartea (bere osotasunean) gaitzak jota zeudela, baina pandemiak areago gaixotu ditu eta argi gelditu da biak ala biak arrisku handiko taldean daudela. Kontua zein da? entitateek zein guk (gizartekide moduan) dugun zaugarritasunak bizi izan dugun krisia bezalako batek eraginda biluzik gelditzen dela eta, horrek, eragin zuzena duela eskubide gutxien onartzen zaizkien pertsonetan; gure kasuan, elkarteetako ume eta haurretan.

¹⁰ Kasuen %28,7etan garapenak zuen erritmoa jarraitu du eta %7,1 kasuetan garapenaren abiadura azeleratu egin da.

¹¹ Illich, I. (2020). *La Sociedad desescolarizada y otros textos sobre educación*. Morata.

4.1. Jendartea pandemia garaian: bi aurpegi

Labur jardungo dugu puntu honetan, ez baitugu jendartearen atalean gehiegi miatu. Halere, kontuan izan behar duguna zera da, egoera pandemiko honek jendartean eragina izan duela, eta gizartean indar egiten duen alderdi orok du *Bizipoza* bezalako elkarteetan eragina. Halaber, eurak ekintza sozialeko elkargoak izanik, gizartea –bakoitzak bere esparruan– ekiten du, eta hutsuneak areagotzen badira gehiago ekin behar izaten dute. Jakina, horretarako ordea indibiduo eta boluntarioen laguntza behar izaten dute maiz, baina hein handi batean, beren lana gehiago zailtzen ez duten pertsonak eta ekintzak dira behar dituztenak. Makina bat bider aditu genuen *“persona hobe izango gara pandemiatik irtetean”* esaldiaren ildotik doa gogoeta hau. Funtsean, hasera batean bazirudien, zaintza-talde boluntarioen eraketarekin eta horren osteko ekintzekin bat-bateko elkartasuna loratzen ari zela, baina horrek hala jarraitu al du?

Hasteko, adierazi behar da, elkarteei beren etorkizunaren inguruan galdegin zitzaienean %10,7k besterik ez zutela uste sortutako elkartasunaren poderioz etorkizuna hobea izango zenik. Baliteke erantzun horietan nolabaiteko etsipenak eragin izana, pandemiak berekin ekarri zituen mugen ondorioz boluntariotzaren jarduna murriztu egin baitzen (egindako galdeketek hala diote). Baina gure ustez ez da hori izan etsipen horretan gehien eragin duena, izan ere, elkarrizketatutako zenbait familiek gizarteko indibidualtasuna eta kontzientzia kolektibo urria azpimarratzen dute. Horra *Pausokako* familia-kideen esanak: *“Nik uste dut jendearen eta instituzioen jarrerak aldatu egin behar duela ezagutzen ez ditugun egoeren aurrean. Kalera ateratzeko aukera eman zigutenean [kolektibo batzuei] etxera bueltatzeko oihu egin ziguten balkoi batetik”*. Bestalde, bihotz-kardiopatia pairatzen duen haurraren ama horrela zuzendu zitzagun:

Eta azkenean hori gelditu zaigu guri, ez? urte honetan. Eta bakoitza berarentzat bizitzen dela, ez? ez du ikusten bere ingurukoa, ez? gure dibertsitate, ez? Berdintasuna ez dago, oraindik asko falta da. (...) Azkenean, jendeak, gaizki egin gabe, baina ez da konturatzen, ez? Ez gara konturatzen zer dagoen ondoan. Musukorik gabe [eskolako egoeragatik] bai, baina agian ondokoak minbizia du eta gaizki pasako du, ez? Ez dugu pentsatzen: gure bizitzan pentsatzen dugu eta kito. “Gure eskubideak” eta non daude ez?

2020 urteko ikerketan jada hitz egin genuen indibidualtasunak eta bakoitzak bere ongizate propioari jaramon egiteak ekar zitzakeen arazoez. Orobat, askatasun dretxoez gehiegi abusatzen duen gizarte batek, beste kideen eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak mindu ditzakeela ere errealtate bat dela azaldu genuen (eskubide hauek legalki ere bigarren mailakoak dira).¹² Hori egungo ongizaterantz dugun ikuspegiagatik ere gertatzen da; hots, ongizatearekiko kontzepzio hedonista eta hori lortzeko erreminta hein handi batean libertatea da. Honekin ez dugu esan nahi, inola ere, askatasuna gaizki dagoenik; kontrakoa, beharrezkoa da, baina batek bere libertatea bestearen eskubide sozialak zanpatuz lortzen badu, gatazka etiko/moral batean barneratuko ginateke. Kontua da, garaiotan guztion “askatasun eskubideak” –ustez dretxo garrantzitsuenek (“derechos y libertades” bezala ezagunak)– urratu direla eta, ondorioz, ongizate indibidualak jaso duen kolpea zitala izan dela. Bada horrek ekarri

¹² Manterola-Pavo, P. (2020). Bizipoza Egitasmoa: Euskal Herriko haurren eskubideak gizarte eta hezkuntza ikuspegi batetik [Master Amaierako Lana]. UPV/EHU.

ditu gatazkak: pertsona bati bere premiak direla-eta aurretik zuen eta kendu zaion eskubide bat aitortzeak sortu dituen erresumin eta mesfidantza kasuak; besteen osasuna eta ongizatea kontuan izan barik gure plazer eta nahietara egokitzen den aisia egitea; beste batzuen osasuna mindu dezaketen errebindikazioak egitea (musukoa kentzearena bezalakoak); edota, kalera irteten direnak kutsatzaile izan daitekeenaren sententzia (lehen aipatutako beldurra). Bada hori Aoizen (2020)¹³ hitzak kontuan hartuz ederki laburbildu dezakegu, berak dioenez, “indibidualismo handiko jendarte neoliberalean bizi gara (63 or.)” eta bakoitzarengan jartzen da norberaren bizitzako ongizatearen, eskubideen eta funtzionamenduaren ardura (laguntza sozial gutxi emanda); banakoak, aldiz, guztion hobe-beharra eta aldaketa soziala begiratu beharrean berea begiratzen du eta elkarren arteko gatazkak suspertzen dira.

Horregatik hartzen dute hainbeste garrantzi *Bizipoza* eta bere barnean aurkitzen diren hainbat elkartek. Beraien inizatibaz ongizate sozial eta kolektiboa bultzatzen da, egiten dituzten ekintzei esker memoria kolektiboa osatu, talde identitatea eraiki eta, elkargo hauek pandemian irakatsi diguten bezala, bakoitzak bere askatasunak apur bat moztu behar izan ditu gertuko eskubide sozial eta ongitasuna bermatzeko. Familia askok egin duten eta egiten dabiltzan bezala: beren bizi kalitatea eta errutinak aldatu (borrokekin, neurri zorrotzekin, etab.), gertuko bizitza bermatzeko. Finean, *ongitasun subjektiboan*¹⁴ hainbeste oinarritu baino, *ongizate psikologikoari*¹⁵ pisua eskaintzen dion gizarte bat eratu behar da eta, hain juxtu, lan horretan zebiltzan elkartek orain arte beren ekitaldi, kanpaina, sozializazio prozesu eta boluntarioak animatzeko inizatibekin.

4.2. Administrazioa ote ongitasunaren jabe?

Ongizatearen eta dretxo-oparotasunaren arteko harreman estua sarritan aipatu dugu; ustez, nazioarteko konbentzio zein Estatu demokratikoetako idatzi legeetan zerrendaturiko eskubideak, oro har, banakoen eta, batez ere, gizarte osoaren ongizatea zein bizi-kalitatea bermatzeko sortuak baitira. Halaber, Nazio Batuen Elkartek bere idatzietan eta Estatuiei egiten dien informeetan ederto adierazten dute Estatu alderdiei dagokiela eskubide horiek beteak izan daitezen ziurtatzea. Bada *IV. Bizipoza Jardunaldian*¹⁶ jada azaldu genuen, alde batetik ongizatean eragiten duten alderdi geroz eta gehiago sortzen ari direla (asko, kontsumoarekin, gorputzarekin, osasunarekin eta lehen esandako hedonismoarekin lotuak), baina aldi berean, lehen existitzen ziren baina errebindikatzeko ez ziren hainbat dimentsio loratu dira eta, juxtu, bertan daude *Bizipoza* eta bere baitan dauden elkarrekin aldarrikatzen diren eskubideen betepena (hauek beren dretxoak idatzi legeetan barneratzea lortu dute). Kontua da, estatuak ez direla gai ongitasun orokorrak eskatzen dituen premia guztiei erantzuteko eta, bereziki, horretan laguntzen die gu ikertzen ari garenen tankerako elkarrekin. Horrenbestez, esan genezake Estatuaren tresna diren administrazioek ongizatearen

¹³ Aoiz, F. (2020). Mamuari so: neoliberalismoa versus burujabetza. Txalaparta.

¹⁴ Ongizate subjektiboa: hedonismoan eta bakoitzaren gozapenean oinarritzen dira.

¹⁵ Ongizate psikologikoa: eudamonismoan eta bizitzarako proiektuetan eta gizarteko eraginean ardaztuta dago.

¹⁶ Bizipoza. (2020). Haurren eskubideak jasoz, josiz, betez... elkarrekin bizipozez! [IV. Bizipoza Jardunaldia]. Lotura: <https://bizipoza.eus/services/bizipoza-jardunaldiak-2020/>

jabetzat dutela euren burua; aitzitik, behin eta berriz azaleratu dute ez direla ongizatearen jabe, ez baitira gai eskubide guztiak aitortzeko eta elkarte eta familien beharra dutelako. Bada, SARS-cov-2 birusak sortutako krisiak are argiago utzi du hori.

Aipatutako hori klaru gelditzen da *Bizipoza* egitasmoko elkarteek COVID-19ak finantzaketa publikoan izan duen eraginari buruz hitz egiten digutenean. Izan ere, %50ek erantzun zigutenez jasotzen zituzten diru-laguntzak murriztu egin dira edo %10,7entzat nabarmen murriztu dira, %3,6en finantzaketa publikoa igo da soilik, eta gainontzekoenak berdin jarraitzen baitute alor ekonomiko honetan. Gauzak horrela, baliabideak lortu eta bai lehengo premiei, bai pandemiak sorturiko nezesitate berriei erantzuteko beharrezko diren baliabideak lortzea zail izan da. Egia da, *Gure Señeakeko* guraso elkarrizketatuak zioen moduan, *“Ulertzen dugu ez dela erraza egoera hau kudeatzen”*, baina era berean, horrek dakarrena Seaskako Integrazio Batzordeko kideak adierazten ziguna da: *“baliabide gabezia asko sumatu dugu eta gure lanaldiaren zatirik handiena ERTE egoeran sartzeko aukera ikusi genuenean, hala egin genuen”*. Laburbilduz: sarrera ekonomikoak ezinbestekoak dira elkarteentzat eta eremu publikotik hauek murrizten badira elkarteak beren kideei erantzuteko baliabide material eta pertsonalak ere urritzen dira –areago kasu batzuetan behar gehiago (digitalak; zaintzazkoak; harremanetarako; osasunerako; terapia-beharrak...) sortu diren garai hauetan–; hala, elkarteetako pertsonen ongizateak bera egitea ohikoa da, beren eskubideak ez baitira osoki asetzen. Funtsean oso erlazioan daude behar hauek Merino eta Romerok (2020) Euskadiko Hirugarren Sektorea aztertzean jasotako emaitzekin: profesional eta terapeuten beharra; bizitzarako beharrezkoak diren ekintzak egitea; menpekotasun egoeran dauden pertsonen dituzten zaintza beharrak betetzea (lehen esandakoa); prozesu psikoedukatibo eta psikoterapeutikoak bertan behera geratu dira jarraipena eman beharrean; emozioen alorrean ere zailtasunak; etab.¹⁷

Esandako hori argi gelditzen da familiek konfinamenduan zehar haurraren/gaztearen zaintzetarako eta premien asetzearako jaso behar zuten erantzun gehigarria administrazioetatik jaso dutela elkarteek %3,6ek bakarrik adierazten digutenean. Gainera, kontuan hartuta ERTE egoerak asko izan direla eta guraso batzuek baja hartu behar izan dutela, baina dirudienez, ez da nahikoa izan beren seme-alaben zaintzak eta berariazko beharrak aurrera ateratzeko eta kide askok lanak utzi, beste seme-alabei laguntza eskatu, eszedentzia egoeran jarri, etab. egin behar izan dituzte (ikusi 5.1. zatia). Horrez gain, zenbaitek, elkarteek, kanpoko entitate edota pertsona gehiagoren laguntza eskatu eta kontratatu behar izan baitute.

Arestikoari hertsiki lotuta, elkarrizketatutako familiei harturiko hitzetan ageri diren administrazioari dagozkion eta bete ez dituen hiru betebeharrak zerrendatuko ditugu: txertoa, musuko gardenen homologazioa, eta zerbitzu zuzenak erraztea.

Batetik, **txertatuak** izan ziren lehenbiziko arrisku taldeetan ez dituzte sartu ez bihotz kardiopatia duten haurrak (*Bihotzez* elkarte), ezta fibrosi kistikoa (*Arnasa* elkarte) dutenak ere; nahiz eta batak zein besteak arrisku handiko taldeak diren beren arnasketa sisteman izan

¹⁷ Merino, L. Romero, Z. (2020). Las organizaciones del Tercer Sector Social de Euskadi ante la crisis de la covid-19. *Zerbitzu* 72.

ditzaketen konplexutasunen ondorioz eta COVID-19ak, zuzenean arnasketa sisteman eragiten duen gaitza izanik, sor zitzakeen ondorioengatik. Honen harira horrela dio *Arnasako* kideak: *“Nik lagun batzuk ditut Estatu Batuetan eta esaten didatenez aspaldi daudela jada txertatuta. Eta hemen (...) ez dituzte sartu lehengo taldeetan. (...) ez dakit lortuko dugun. Jada jende gehien txertatuta dagoenean, jende nagusia txertatzen dutenean”*. Egoera hori ikusita *Bihotzezeko* familia-kideak dioenez beren erakundetik administrazioarekin harremanetan jarri ziren: *Horrela egon gara. Deitu dugu, elkarteko batek LABI teknikoarekin hitz egin zuen, eta dena lotu genuen, eta esan zioten ezin zutela ezer ere egin. Programa horrela jarrita dagoela eta ezin zutela. Mezuak bidaltzeko, e-mailez bidaltzeko ... eta hor gaude, eskutitzak bidaltzen*. Baina txertoarekin akordioan, ez dira haurraren txertaketak familietako haurrek egin dituzten errebindikazio bakarrak, *Gure Señeakeko* kideak horrela esan baitzigun, beraiek (guraso eta zaintzaile moduan) txertatu barik zeudelakok: *Guk aldarrikatu dugu, (...) ezintasun handia duen pertsonaren alboan beti dago beste talde bat edo artatzaile bat. Eta txertoak planteatu direnean planteatu direnean pertsona horientzat “eta gu zer?”. (...) Ez digute proposatu txertoa zaintzaile izan arren*. Jakina, egoera hauek haur, gazte zein familien eskubideak baldintzatu ditu sozializazioaren, jolasaren, hezkuntzaren, familiatik gertu egotearen eta erabakitzearen esparruan. Gainera, *Gure Señeakeko* lagunek seguru sentitzeko helburuarekin txerto esperimental bat hartu zuten. Hortaz, txertaketek izan behar zuten ordenaz administrazioak badu zer hausnartu.

Bestetik, aurretik aipatu bezala, **Musukoaren homologazioak** orokorrean asko eragin du pertsona ugariengan, baina bereziki, gorren eta entzumen urritasuna duten pertsonen kolektiboetan sortu dira musuko opakuen aurkako jarrerak. Izan ere, musukoak komunikatzeko aukera asko mugatu digu denoi, aurpegiko zeinuak, ahotsaren gardentasuna eta ezpainen mugimendua mugatzen dituelako. Maskara garden baten homologazioaren alde egiteko horrelako arrazoiak ematen dizkigu *Ukertuz* elkarteko kideak: *“alde batetik, ahotsa asko iluntzen du(...) bestetik, ezin ditu ezpainak irakurri(...); eta bestetik, aurpegiko espresioa bera, ez? horrek ere ematen du informazio asko, emozioak begietan bai, baina ahoan ere ikusten dira: Azkenean desabantaila handi bat da musukoarena”*. Halaber, ezin ahantzi daitezke autismoa edo garapenaren nahaste orokorra duten zenbait pertsona, zeinak musukoak asko eragin baitien. Zenbait gaitz dituzten pertsonekin aldiz, *Bihotzez* elkarteko gurasoak esan moduan, beren seme-alabek ezin dute FPP2 motako maskara inongo unetan kendu (etxean izan ezik) koronabirusagandik babestu behar baitute, baina noski, zaie *Arnasa* ongi hartzea ere funtsezko suertatzen zaie. Baina tira, azken esaldia homologazioarekin lotuta ez doan arren, kasu hipotetiko batean FPP2ak ez dira zehar-argiak eta, beraz, *Bizipozaren* ekimen batean-edo, *Bihotzez* elkarteko eta *Ukertuzeko* komunikazioa emango balitz zailxeagoa izango litzateke, bertan musukoak eragingo bailuke.

Amaitu aurretik, adierazi behar da nolabaiteko zerbitzu-eskasia sumatu dutela zenbait familietako kidek eta, hori, justuki premia dezentea zegoen unean nabaritu da. Noski, hori hein batean administrazioaren hutsune garrantzitsutzat hartu dugu. Egia da, alde batetik, zenbait elkarrek adierazi digute bai inkestan, bai elkarriketan, zuzeneko terapia faltan bota dutela eta horrek terapeutarenganako konfiantzan eta –Casquete Tamayok (2020) dioen eran– “erreferenteen galeran”¹⁸ eragina izan duenez prozesuak zertxobait moteldu direla; eta,

¹⁸ Casquete Tamayo, E.J. (2020). Vulnerabilidad ante el Covid-19 de la Población Infantil con Discapacidad. *Revista Científica Hallazgos*21, 5(2), 171-184.

bestetik, *Gure Señeak* eta *Arnasa* bezalako elkargoen kasuan fisioterapia saioak etxetik moldatu behar izan dituztela ariketak profesional batzuen instrukzioak jarraituz eginda, nahiz eta hori beren lana ez izan. Dena den, zerbitzu publikoen atentzioa dela medio egoera gaitzena bizi izan dutenak elkarriketatutako *Hiru Hamabi* elkarteko ama, bere familia eta, haurra bera izan dira. Finean, urte asko beren eskubideak erantzungo zituzten zerbitzu publikoengatik borrokan eta lorpenak gauzatzen egon ostean, beren burua ataka larri batean ikusi duten itxialdi gogorrean izandako zerbitzu gabeziagatik. Hona hemen menpekotasun handiko sei urteko alaba duen ama baten hitzak:

Nik esaten nuen, gure alabak ez zuela ordaindu behar ezer pribatua bera horrela segurtasun publikoak utzi zuelako [bere egoera ebakuntza baten ondorioz da horrelakoa]. (...) Oso zaila jarri ziguten, bilera piloa izan genituen zerbitzuko nagusiarekin, esan ziguten alaba ez zela erreabilitatzeko, baizik-eta mantentzerako, eta orduan, bada ezetz, ez ziotela ezer ere ez eman behar. Eta hainbeste borroka egin ostean, Hiru-Hamabiko zuzendariarekin, asko lagundu ninduela, bilera oso potente bat izan genuen eta pandemiaren aurretik Lizarran erreabilitazioa lortu genuen: bertan eta segurtasun sozialak babestuta, eta egunero Lizarra Ikastolan fisioa zeukan.

Eta beno, pandemia etorri zen eta hor izan zen ia “el colofón”. Hor dena kendu ziguten. (...) (...) Dena edukitzetik, etxe ondoan bere eskubideak beteta, aurkitu ginen neskatoak ezer ez zuenarekin eta bera okerrera zihoala.

Bere esanetan, literalki, bere alaba “minez hiltzen” ari zen fisioterapia faltagatik, eta arrisku handikoa zenez, ez zioten fisiorik bidali etxera (COVID-19a harrapatu zezakeelako). Gerora hedabide ugaritan beren egoera salatzen egon zen arren, eta instituzio publikoei euren egoera adierazita zerbitzuen eskariak egin bazizkien ere, ez zuen erantzunik jaso eta neurri berriak hartu behar izan zituzten horrek suposatzen duen karga emozional guztiarekin:

Baina ez dugu inolako erantzunik izan. Eskutitz bat jaso genuen, esanez, pandemiaren kontuarekin gainezka zebiltzala eta erantzungo zigutela. Baina, gaur-gaurkoz ez digute ezer ere esan. Baina jada beraiek ere lasai daude: Aiora jada Aspacen dago, beran beraien ustetan ez daukate ezer ere esateko. Amore eman dudanaren sentsazioa daukat, ni ere nekatuta eta atsekabetuta bainengoen, zeren borroka egitea gogorra da.

Ondorioztatuz, ez da zalantzarik gelditzen: administrazioak hutsune asko ditu eta pandemia honek agerian utzi ditu. Azken finean, entitate publikoek alderdi jakin batzuetarako izan duten jarrera eta ekimen ezak haurrengan eragiteaz gain familietaraino sartu da. Egia da, horrelako kasu batean osasunak lehen lerroan egon behar duela, baina osasun-egoera orokorrak aukera berdintasunerako eskubidea urratzea zilegi ez dela uste dugu. Hau da, hezkuntza premia gehienak beteta badaude, zergatik ez *Bizipozako* haurrenak? Osasunaren aldeko neurriak hartzen bagabiltza uneoro, zergatik ez eragin positiboki *Hiru Hamabiko* haur bati fisio-zerbitzua jarrita? Musuko jakin batzuek haur eta gazteen komunikaziorako eta harremanetarako egoerak hobetu baditzaie, zergatik ez saiatu homologatzen? Azkenean, *Bihotzez*-eko kide elkarriketatuak zioen bezala, “*Poblazio orokorrean pentsatzen bada pixka bat*

kanpo gelditzen zara, ez?”. Edo Arnasako amak indartsu salatzen duen eran, *“gobernuak, eta fitxak mugitu behar dituztenek jakin behar dute hor gaixotasun asko daudela eta, gu, ez gara beti “paganoak” izango.(...) guk ezin dugu guztia egin eta gure haurrek hobeto bizitzeko posibilitadeara agian ez daukate horregatik: ez daukatelako behar besteko laguntzarik.”* Goikoetxeak (2016)¹⁹ ederto dio, administrazioek babesa eskaintzen dietela arriskuan dauden gizarte-kideei eskubide sozialen onarpenarekin eta justizia sozialaren aldarriarekin, baina errebindikazio horren aldarria berez arriskuaren sozializatzea dela, ez ordea eskubide klasikoen hedaketa.

5. Elkarteak eta familiak sendagile nagusi

Egunero-egunero, itxialdi gogorrean zehar, hala irteten ginen balkoi eta leihoetara. Bizilagunei aurpegiak ikusteko aprobetxatu, eta lehen lerroan, *“bizitza(k)”* hitzak dituen konnotazio guztien bueltan elkartzen erizain, mediku, ospitaleetako langileak, eta abar txaloz omentzera. Askotan esan izan da: *“super-heroia guztiek ez daramate kapa”*. Baina ikerketatxo hau burutu ostean, zera esan dezakegu: *“txabusina ez daramaten super-heroiak ere ezagutu ditugu”*.

Jarrai dezagun bada heroien konparaketarekin, baina oraingoan Wikipediatik ateratako definizioaren parte batetik partituta: *“Super-heroia heroia klasikoen gaitasunak gaintzen dituen fikziozko pertsonaia da, orokorrean gizakiaren gaitasunetatik haratago dauden super-botereak ditu. (...) Kontzeptu hau komiki, zinema, bideo-joko, telesail eta literaturan sobera erabilia izan da”*²⁰. Gauzak horrela, Bizipozako elkarteetako kideek eta familieek, ez al dituzte neurri horiek betetzen? Finean, kasik fikziozko egoera baten aurrean aurkitu gara eta beraiek bakarrik izan dute haur zein gazte batzuen eskubide eta premiak betetzeko ahalmena eta adorea. Orobat, gehitzeko –bitxikeria gisa bada ere– heroia hauek literaturan, komikietan, ipuinetan eta ikus-entzunezko hedabide zein baliabideetan irteten dira²¹. Baina garrantzitsuen zera da, esan genezakeela, pelikuletako super-heroia famatuen gisara, pertsonen bizitzak salbatzen jarri dutela beren indarra eta, zeharka bada ere, jada gaixo zegoen gizarte bat ere salbatu dutela eta beren premiak zituzten.

Funtsean, uste dugu –eta lehengo urtean egindako ikerketak ere hala adierazi zигun– gizarte “gaixo” honek bizirik badirau, onerako ala txarrerako, elkarriketatu ditugun elkarte eta familien lanari esker dela. Eurak baitira era batera edo bestera Estatuak eta administrazioak pertsona ororengan ziurtatu behar dituzten eskubideak betetze dituztenak. Baina noski, hori lortzeko eurak izaten dira sakrifikatu behar izaten dutenak, botereak –pelikuletan ez bezala– ez baitira magikoak, maitasunezkoak eta ekimenezkoak baizik.

¹⁹ Goikoetxea, J. (2017). Demokraziaren pribatizazioa. Kapitalismo globala, Europa eta Euskal lurraldea. Elkar.

²⁰ Wikipedia. (d.g.). Superheroi. <https://ca.wikipedia.org/wiki/Superheroi>

²¹ Nerea Godoy-k idatzitako *Bizipozaren Begirada*-n; Mundu Berri Bat Guztiontzat DVD-CDan; Irrien Lagunak-eko komikietan; *Bizipoza.eus*-en ageri diren mikro-ipuin eta bideoklipetan; hedabide ugartan; eta abar.

5.1. Familiak: konpromisoa eta disiplina

Gertukoen eta maite dituztenen bizitza beren bizimoduaren aurretik jartzen iaioak dira familia-kide hauek. Izan ere, itxialdi gogorrean zehar, eskolak itxita, erantzun espezifikoak ematen duten hainbat zentro eta elkarteak jarduna murriztuta, ERTE egoerak indarrean jarrita eta, zaintza guztiak (premia espezifikoak eman beharreko erantzuna barne) etxean zentratuta, familia anitzek beren bizitzetan aldaketa behartuak eman behar izan zituzten.

Datuek argi erakusten dute, galdetutako elkarteen erdiak haurraren eta gazteen zainzagatik familia-kideren batek ez-ohiko neurriak hartu behar izan dituztela: lana utzi behar izan dute, kanpo-laguntza kontratatu behar izan dute, behar espezifikoak dituzten haurren anai-arrebek lagundu behar izan diete, asko ERTE egoeran zeudelako etxean egon dira, etab. Honen harira, *Arnasa* elkarteko kide den ama batek horrela adierazi zigun lanarekiko bizi izan zuen egoera:

Bada nik ospitalean egiten dut lan, eta hasiera batean dena oso azkar zihoan eta protokoloak egunero aldatzen ziren. Beldurra zegoen. Orduan, nik utzi egin behar izan nuen lana. Arduradunak esan zidan: “zure alabak daukanarekin, hobe duzu ez etortzea”. Eta utzi egin nuen; ez COVID-19gatik, ezpada bere biriketako infekzioagatik.

Hor ikusten da, goran esandako beldurrak eta, batik bat, ezjakintasunak sortzen duen ikara horrek (sufrimenduari beldurrak) nola eragiten duen. Zeren, azkenean, familia guztiaren ongizatean eta baliabideetan eragiten duen lana eta baliabide ekonomikoak balantzan jarri behar izan dituzte familia dezentek. Ez dezagun ahantzi, bada, 2020an egindako ikerketako emaitza bat izan zela. Horregatik, esan dezakegu, hor eragiten duena, finean, maitasuna dela, baita amodio horrek loratzen duen konpromisoa ere. Engainamendu hori da, hain zuzen, muturreko egoera batera joanda, *Hiru Hamabi* elkarteko guraso batena, zeinak bere sei urteko alabaren bizitzagatik borrokatzen diharduen eta pandemiak ezohiko neurriak hartzera eraman duen. Horrela, hamaika hedabidetan egon eta gero, administrazioari eta osasungintzari eskaerak egin ostean, elkarrekin ahalik eta gehien kolaboratu ostean azken aukera hatu behar izan zuen:

Iritsi zen momentu bat ikusten nuen erantzun bakarra Aspacetik zela. Eta beraiek behintzat, proposatu ziguten Aiora bertara eramatea, ordutegi finko batean, fisio pixka bat izateko. (...) Orduan, asistentearekin jarri nintzen harremanetan, ea behintzat han sartzeko aukera geneukan, zeren han dena daukazu: fisio, logopeda, medikua... (...) Nik inklusioa landu nahi nuen, eta horregatik Lizarran zegoen Urtxintxa gelan, ekintza asko egiten ziren hau lantzeko eta, derrepente aurkitu ginen edo Aspace, edo etxean hiltzen minez [bere alaba]. Eta asistenteak esan zigun eguneko zentroan ilera handia zegoela, eta horregatik proposatu zigun erresidentzia. Han lo egitea asteen zehar. Eta alabak han darama kasik urtebete. Asteburutan hemen dago. (...) Oso gogorra, oso gogorra: pandemia batean zure haurra bakarrik uztea, 6 urterekin... (...) Eta hor egon da *Hiru Hamabi* laguntzen.

Beraz, administrazio eta zerbitzu publikoetatik haurraren beharrak eta eskubideak (osasun, hezkuntza, zaintza) babestu ez direnez, familian erabaki gogor bat hartzera eraman dute. Era

berean, erabaki horrekin, Haurren Eskubideen Inguruko Konbentzioko²² 9.1 artikulua urratu da, zeinak esaten duen, Estatuek haurra bere gurasoengandik ez banantzeaz arduratu behar dutela.

Izatez, muturreko egoera bat den arren, ohikoa da osasunera zuzendutako neurriak hartzea, izan ere, *Bizipozako* elkarteetako familien %29.8ek diotenez, gehien arduratzen ziena beren haurren osasuna zen. Hau esanda, kontuan hartu behar dugu haurrez ari garela eta, berez, haurrengan fuerteei eragiten ez duen gaitza dela SARS-Cov-2ak sortutakoa. Orobat, egia da, azken aipua oso erlazionatuta dagoela osasunarekin, baina ez, juxtuki, COVID-19ak sortutako gaixotasunak eragin ditzakeen egoera zitalekin; ezpada neurri pandemikoek eragindako zerbitzuen murrizteak izan ditzakeen ondorioekin. Dena den, bada COVID-19ak haurraren izan zitzakeen egoerez jabetuta beren errutinak erabat aldatu eta arrisku ezberdinak balantzan jarri behar izan dituenik:

Familia bakoitzak ahal duena egin du. Guk jantokira ez joateko aukera dugu eta aitona-amonen etxean gelditu dira jantokira ez joateko, hamaiketakoa ez dute eramaten musukoa ez kentzeko. Horrela egin genuen plana (...) Familia osoaren errutinak aldatu dira. Gure kasuan ez dugu bizitza sozialik egiten. Lanetik etxera eta etxetik lanera eta horrela. Tabernetara eta horrela ezer ere ez. (*Bihotzez*)

Familia honek esaterako aitona-amonena jarri behar izan du balantzan eta eurak ere inplikatu behar izan ditu. Hala, hobekien kontrolatu zitzaketan eremuetan ibili dira, nahiz eta, arriskuaren berri izan.

Askozaz zorrotzago jokatu behar izan zuten *Gure Señeakeko* elkarrizketatuek eta, semea zaindu eta babesteko, erabat etxean gelditu ziren, ez baitzuten eguneko zentrorra eraman nahi. Etxetik gehien irteten zenak, aldiz, (amak lanera joan behar zuen) etxera sartu aurretiko neurri espezifikoak hartu zituzten. Horrela zioen aitak:

Gu, lehenengo, oso gutxi mugitu gara, oso gutxi, oso gutxi. Bueno ba, emazteak lanera joan behar zuen, (...) Eta bueno, beti maskararik kendu gabe: maskara babesgarriena (FPP2 edo dena delakoa). Eta gero, etxera datorrenean, badu komun bat berarentzat, arropa kendu, ondo garbitu... gugana ondo gerturatu ahal izateko. Bai hartu ditugu neurri apur bat zorrotzak. (*Gure Señeak*).

Horrelako egoerek familia-kideei behar zituzten instituzioek eta beste zerbitzuen egitekoak hartzera bultzatu ditu. Esgoera batzuk aipatzearen, Gure Señeakeko kide honek bere semeari erantzuteko fisioterapia nozioak jaso behar izan ditu beren ohiko fisioterapeutarengandik eta *Pausokako* haurraren gurasoak izan dira eskolako lanen moldaketa egin behar izan dutenak. Beraz, ez dago zalantzarik familiek beren haurrengan eta gizarte osoarengan jokatzen duten

²² Haurren Eskubideen Komitea. (1989). Haurren eskubideen inguruko ituna. Unicef

papera ezinbestekoa dela. Hala ez balitz, sozietateko premiak ase gabe egon eta gu guztionak kolokan egoteko aukera gehiago izango bailituzkete.

5.2. Elkarteek ez dute etsi

Murritz, bai. Murritz egin behar izan du *Bizipozako* parte diren elkarten jardunak, izan ere, lehengo urtean ikusi genuen eran, elkarte hauen helburu asko sozializazioan oinarritzen ziren: beraien arteko harremanetan, beren kausa helaraztean, jai eta ekitaldiak eratzean, etab. Noski, koronabirusaren pandemiak biziki eragin du ekintza horietan elkartzeko egon diren trabak direla-eta. Horrenbestez, elkarteetatik %17,9k diote itxialdi gogorrean zehar hutsera edo ia ezerezeroa murritz zutela beren jarduna eta, %35,7k, aldiz asko murritz behar izan zuen. Zifra horiek kezagarriak dira haur batzuk erantzun, baliabide, laguntza... jakin batzuk gabe geldi daitezkeela pentsatzera eramán gaitzakeelako. *Afestta* elkarteko kide den gurasoak argi adierazten zuen beren elkarteko kasua zein zen:

Elkartea une honetan “bajo mínimos” dago. Azken urtean indarra galdu du. Beti izan dugu arazoa, jendez beti izan delako elkarte oso txikia. Noski, orain jende berriak ez dauka ilusioa elkarte berri batekin jarraitzeko, edo elkarteari zerbait apartatzeko. Gu beti hilean behin elkartzen ginen eta hori gelditu egin zen. Ez gara elkartu pandemia hasi zenetik. Bai, jendeak deitzen jarraitzen du, informazio bila etab. eta , guk, erantzuten dugu. Baina ez dugu besterik egin.

Dena den, elkarten gehiengoek konfinamendua estrategia berriak jarri zaituen martxan, eta hori positiboa da, egoera batzuetara hein handiagoan ala txikiagoan moldatzeko gai izan direlako eta ikaskuntza horiek etorkizunean ere iraun dezaketelako. Are gehiago, esan dezakegu, elkarten gehiengoaren aktibitateak berriro gora egiten hasi zela itxialdia amaitu zenean. Baina horrek ez du esan nahi ase gabeko premiarik ez dagoenik. Aitzitik, elkarten gehiengoak uste du (%39,3) haurrek premia berdintsuak dituztela, baina beste hainbatek (%28,6) diote, haurrei erantzuten jarraitzen dioten arren, egoera berriaren ondorioz lehen ez zeuden premiak sortu direla.

Jakina, baliteke elkarrekin haurren premiei erantzun eta eskubideak bermatzeko burutzen duten lan horretan beharrezko duten subjektu baten falta sumatu izana: hau da, boluntarioak. Izan ere, 2020an egindako ikerketan elkarte askok azpimarratzen zuten subjektu honen premia eta, areago, beren egonkortasuna, gehiago animatzea, etab. behar zutela zioten batzuk. Gainera, guk egindako ikerketa-emaizetan ere figura honen ekimena goraipatu eta berengan izaera sozio-kritiko baten aldeko apustua egin nahi izan genuen. Dena den, kukuak oker jo digu, izurri-egoerak boluntariotza mobilizatzeko zailtasunak, elkartean lan egiteko trabak, non eta nola ekiteko ezjakintasunak eta, zenbaitetan, boluntarioekin izandako harremanak galdu edo ahultzeak ekintza boluntarioa murritz baitute.

Hori gutxi balitz, elkarteetako diru-sarrerak murritz egin dira garaiotan. Noski, organizazio zein familia askoren beharrak eta eskubide-oparotasuna xahupen ekonomiko bat duten baliabide material, pertsonal eta medikoetan oinarritzen direnaren jakitun eta, zenbait

kasutan, erantzun beharreko problema berriak sortu direla kontuan hartuta, haurrei eman beharreko erantzuna murriztea.

Alabaina, adierazi behar da, *Bizipoza*ko organizazio gehienek gizarte- eta osasun-egoerak jarritako oztopo asko ebazten saiatu direla eta euren erantzunak beste era batera organizatu behar izan dituztela. Alde batetik, konfinamenduan, online erantzunak gailendu dira eta, hala, kontsultak, terapiak, fisio-saioak... eskaini dituzte. Etsenplu garbiak dira elkarriketatuek adierazten dituztenak: etxean fisio egiteko zuzenbide eta gomendioak jaso dituztela diote, terapia hala edo nola jaso dute baliabide teknologikoak erabiliz, *Pausoka* bezalako elkarteetatik haurren garapenerako “lanak” bidaltzen jarraitu dute, etab.

Hori bai, azpimarratu beharra dago, itxialdian zehar elkarteetatik ume eta gazteei eman zitzaizen erantzun zuzena eremu psikologiko-emozionalari begira eman direla, nahiz eta egon diren premiak eta beldurrak –familien arabera– harremanekin eta sozializazioarekin lotutakoak izan diren. Horrek, gure iritziz, badu halako esplikazio bat: elkarteek sozializazio gabeziak dakartzan ondorioetan eragin dute. Hau da, elkarteek ezin izan dute zuzenki sozializazioan eragin eta oraindik ere oztopo legalak zein murriztaileak nabari dituzte “elkarrekin” egiten diren ekimenak burutzeko, naiz eta, erlazio pertsonarteko oinarritutako ekimenek gora egin duten itxialdiaz geroztik. Familiak, aldiz, ez dira erratzen eta jakin badakite pandemian egon daitekeen hutsunerik handiena eremu sozialetan eman daitekeela eta, horrek, haurren ongizate emozional eta psikologikoan eragin baitezake. Beraz, elkarteak askok oso habil jokatu dute eta, haurren harremanetan gehiegi eragin ez zezaketen garaian, pandemiak eragindako erlazio-murrizteak zekartzan ondorioetan (emozioetan) ahalik eta positiboen jardun dute.

Ondorioz elkarteek ez dute etsi eta ez dute beren egitekoa itxi. Areago, ausartzen gara esaten, beren ekimena are konplexuagoa eta mardulagoa izan dela, estrategia berriak hartu behar izan baitituzte. Gainera, etorkizunera begira lan handia dagoela ikusten da. Jakina, *Bizipoza* zein elkarteek beren bide utopiko horretan jarraituko dute, baina malkartsua izango denaren sentsazioa nabari da, bai datuetan, bai elkarteen erantzunetan.

ESKUBIDE-EGOERAN ALDAKETAK

Orain artekoan emaitza guztiak aztertu eta eskubide zein ongizatearen parametroetako eragina azaltzen duten alderdiak ekarri ditugu. Aipatzen joan gara eskubide batzuek behera egin dutela COVID-19ak sortutako egoera dela-eta. Hori dela eta, egokia iruditzen zaigu, lehengo urteko ikerketan (2. eranskinean) egindako eskubide-dekretuen zein Nazio Batuetako Erakundeak (NBE) Estatuei bidaltzen dizkien iradokizunen azterketatik abiatuta, esanguratsuen suertatzen zaizkigun dretxoek azken urte eta pikoan izan duten bilakaera zer-nolako izan den ikustea. Hala, eskubide naturalez gain, dretxo positiboak –hau da, legeetan eta nazioarteko testu juridikoetan daudenetara– egokituko dugu diskurtsoa. Beraz, laburki bada ere, horri ekingo diogu osteko lerroetan, ikerketa honetan garrantzi gehien izan dezaketela uste dugun NBEaren eskubideen inguruko 3 itun/konbentzio hartuta:

1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala izurri garaietan²³

Eskubideen gaineko aldarrikapen nagusiak dioenez, denok berdin, libre eta duintasunez jaiotzen gara eta aldi berean, dio, anaitasunez jokatu beharra dagoela (1.art.). Gainera, eskubide horiek sexu, arraza, kolore, hizkuntza, erlijio edo beste edozein berezitasunek ezin muga ditzakeela adierazten du hitzarmenak, esanez, ez direla inola ere ezberdintze politiko, juridiko eta internazionalak emango (2.art.). Halaber, gizabanako orok askatasun-, bizitza eta segurtasun-eskubideak dituzte (3.art.). Baina, nolabait, lehenengo artikulua dioen duintasun horrek behera egin du, ikusi ahal izan dugun moduan aukera berdintasunak eta hainbat arlotan, haur eta familietan, bizi-kalitateak izan duen beherakada dignitate hori gutxitzen du. Halaber, esan beharra dago, duintasun-murrizketa hori emateko arrazoia berezitasun (gaixotasun, aniztasun, izaera...) batzuegatik eman dela. Eta zer esanik ez, askatasuna asko mugatu da, ustez segurtasunak gora egin duelako, baina bizitzarako eskubidea zartatzen denean – esaterako Hiru Hamabiko parte hartzailearen kasuan– segurtasun horrek duen zentzuak behera egiten duela dirudi.

Zerbitzu aproposak eta administrazioak eskainitako laguntzak lortzeko zailtasuna egon dela ikusi ahal izan dugu eta, esan dugunez, fisioterapia, psikoterapia, osasu... eremuetan egon diren hutsune anitz estali behar izan dituzte elkarteek edota familiekin. Esku hartze hori jada existitzen zen, baina zerbitzuen itxialdiak eta ospitaleen egoera zailak areagotu egin du aipatutako instituzioen eragin, erakunde publikoen interbentzioa, aldiz, urritu egin da. Bada NBEaren arabera pertsona orok segurtasun sozialerako eskubidea du eta estatuak eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak erraztu behar dizkie hiritarrei hauek bizitza duin bat izan dezaten (22.art.). Horri atxikita dago, pertsona orok bizi-maila egokia izan dezan, osasunaz, ongizateaz, elikaduraz, jantziez, etxebizitzaz, mediku-asistentziaz, eta zerbitzu sozialez gozatzeko eskubidea duela adierazten da hitzarmenean (25.1.art.); haurren kasuan aldiz, denek babesa eta zaintza jasotzeko eskubidea dutela azpimarratzen da (25.2.art.). Aitzitik, haur eta familiak une askotan babes-gabe ikusi direla jakinarazi digute, zerbitzu sozialak ez direla behar beste euren premietara egokitu eta euren ongitasun egoera kinka larrian ikusi dute.

Azkenik, aipatzeko gelditzen da, hezkuntzari dagokionez, pertsona denek dutela doako derrigorrezko hezkuntza jasotzeko eskubidea; tolerantziarako eta giza-eskubideen filosofian hezten duena izango da; eta gurasoek haurren hezkuntza hautatzeko eskubidea dute (26.art.). Kasu batean gutxienez gurasoek beren haurra egotea nahi zuten hezkuntza instituziotik atera behar izan dute; arriskurik ez izateko, beste batzuek etxean ikasi behar izan dute segurtasun sozialekoekin eta orduak murriztuz; ugari beharrezko tresnarik gabe gelditu dira kalitatezko hezkuntza izateko eskubidea mugatuz; beste batzuen eskolatzea ezin zen tresna digitalekin gidatu; kasuren batean ikastetxeei exijitu behar izan zaie egokitutako materiala bidaltzeko; eta orokorrean, inkestek diotenez, hezkuntzak beherakada bat izan du haurraren garapen integrala bultzatzeko duen labore horretan. Hortaz, kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidearen bermea apur bat ilundu da (ikus *Emaitzak eta Gogoetako 3. zatia*.).

²³ Asamblea General de la ONU (1948). *Declaración Universal de los Derechos Humanos*. [217 A (III)]. Paris.

Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (1966)²⁴ eta izurria

Estatuek Eskubide Sozialen Ituna onartzen dutenean berariaz ongizate orokorra ziurtatzeko xedea (4.art.) duen testu juridiko bat onartzen dute; hori dela eta, euren lana da ongizate orokor hori mantentzea. Ez dago esan beharrik, *Bizipozako* kideen kasuan ez dutela beren jomuga erdietsi.

Itun honetako 10. artikulua familiaren garrantziaz hitz egiten du eta diosku, familia babestea ezinbestekoa dela (10.1.art.); eta hortik abiatuta, artikulua berean adierazten da haurrak eta nerabeak denei babesa eta laguntza eman eta eskaini behar zaiela inolako diskriminazio barik (10.3.art.). Hau aurretik esandako guztiarekin alderatzen badugu, konturatuko gara familiari eta familiei eskaini zaien babesa urria izan dela, eta familiek –lehen mailako sozializazio instituzio gisa- jaso duten babesgabetasun egoera horrek oraindik kalteberago egin ditu haurrak; halaber, haurrek beren premiei erantzuteko izandako arazoen ondorioz, familiak eraginda aurkitu dira sozializazio, emozio, lan esparruetan, eta abar. Horrek guztiak ondorengo eskubideetan ere eragin du, jakina: Estatu-alderdiek pertsona orok bere eta bere familiaren bizi-maila egokia izateko (11.1.art.); eta biztanle guztiek dute bizi maila ahalik eta altuenaz gozatu eta osasun mental zein fisiko desiratua eta egokia izateko eskubidea (12.art.) (eta horretarako zerbitzuak sortu beharko direla dio itunak 12.d-n). Konbentzioaren arabera, Estatu Kideek neurri egokiak hartu beharko lituzkete eskubide horien eragingarritasuna ziurtatzeko.

Haurren Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzio (1989)

Konbentzioaren arabera, umeak 18 urtez azpiko pertsonak dira (1.art), beraz, konbentzio honek zehazten ditu *Bizipozako* erakunde gehienetan dauden haur eta gazteak.

Aurreko itunen batean adierazi dugun moduan, haurrei buruzko eskubideen idazkiak dio Estatu-alderdiek neurriak hartu behar dituztela umeak diskriminatuak izan ez daitezen eta babesa jaso dezaten eta, hori, haurrak dituen berezitasuna etniko, kultural, sexuala, etab. kontuan hartu gabe (2.art.). Hala, estatuak neurria legal eta administratiboak hartu beharko ditu hitzarmenean zerrendatzen diren eskubideak bermatzeko (4.art.) eta baita gurasoen eskubideak eta eginbeharrak ziurtatzeko ere (5.art.). Ordea, jada esan dugu haurrak bigarren planoan geratu direnaren sententzia izan dugula eta, nolabait, birusak eragiten ez zienaren ustetan babesgabe utzi direla eta beste hainbat dretxo urratu edo gutxiarazi zaizkiela. Esan genezake, instituzioek martxan jarri dituzten baliabide horietan ez zirela haur guztiak sartzen eta, hain juxtu, beren berezitasunagatik haur guztiek ezin izan dutela eskubideez berdinduz gozatu.

²⁴ Asamblea General de la ONU. (1966) Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales. [2200 A (XXI)]. Geneva.

Areago, esan dezakegu 6. artikulua urratu dela, bertan esaten denez, haur guztiek bizitzako eskubidea eta estatuek haurren biziraupena eta garapen osoa ziurtatu beharko baitute. Aldiz, jakin badakigu osasunean zein hezkuntza garapenean zailtasun anitz suertatu direla garaioan, haurren eboluzio sozial zein psikoemotionalan jarduteko trabak suertatu dira, zer esanik ez garapen fisiologikoan. Funtsean, hori oso lotuta dago konbentzioko 23. artikuluekin, horrelako zerbait baitio: berezitasunak dituzten haurrek hezkuntza, zaintza, abilezien entrenamenduak, etab. jasotzeko eskubidea daukate eta Estatu Kideek, haur hauen eskubideen jakitun, tratamendu mediko, psikologiko eta funtzionalaren esparruan informazio egokia trukatzeari, barnean hartuta errehabilitazio-metodoak eta irakaskuntza- eta lanbide-heziketako zerbitzuei buruzko informazioa zabaltzea, bai eta informazio hori eskuratzeari ere, bultzatu behar dute. Tamalez, ez dira behar-behateko zerbitzu martxan jarri eta, lehengo urtean ikusi genuen ikerketan ikusi genuenez, aurretik ere zerbitzu gehiago behar zirelako existitzen zen elkarrekin ekimena; 23. artikulua betetzeko zailtasunak egon dira eta instituzioek ez dute gaitasunik izan haur horiei eman beharreko erantzuna garai pandemikoetara doitzen. Horrenbestez, haurrek ahalik eta bizi maila oparoena (26.art) eta bizitza duina izateko (27.art) duten dretxoak ere xumetu egin dela esan genezake, dena hari bat baita.

Amaitzeko, esan, sozializazio urriak, eskolaz kanpoko ekintzen gutxitzeak, batzuek eskolara joateko izan dituzten mugak (hezkuntza eskubidea: 28. eta 29.art.), eta abarrek 31. artikulua urratu dutela; honek jolasa, aisialdia, ekintza kulturalak, etab. eskubideak direla esaten baitu. Areago, konbentzioak dioskunez Estatu Kideek jolasari eta aisialdiari eskainitako ekintzak bultzatu behar dituzte.

IKASPENAK eta AURRERA BEGIRAKOAK

Koronabirusaren ondorioz igaro dugun prozesu hau zaila izan dela jakinaren gainekoa da, baina are gaitzagoa izan da lan honen bidez aztertu dugun *Bizipoza* elkarteko haur, gazte eta familientzat. Azken finean, haur eta gazteei hainbat eremutan eragin die pandemiak, baina kolektibo ahaztuak izan dira egoera malkarrenak aurkitu dituztenak. Nahiz eta batzuk, euren berezitasunen ondorioz, osasun arloko arrisku-talde gisa hartu diren, une batzuetan ez da aintzakotzat hartu eskusio sozialaren, hezkuntza zailtasunen, aukera berdintasun gabeziaren eta beste hainbat eremutan egoera periloak bizitzeko aukerak zituztela. Maiz, hori kontuan hartu duten bakarrak elkarrekin, familiak eta, noski, haurrak dira. Dena den, krisi hau igaroan, esan genezake gerta daitekeen gauzarik arriskutsuena ezer ere ez aldatzea eta denak pandemiaren aurretik zegoen moduan jarraitzea da²⁵, aurretiko egoera ere ez baitzen elkarrekin, familia eta haurrek errebendikatzen zutena.

Baina tira, kolektibo hauek guztitik ikasteko tasuna dutenez eta halako pista batzuk eskaini dizkigutenez, ikerkuntza xume honek eskaini dizkigun ikaspenak eta aurrera begirakoak

²⁵ Caballero Barturen, A. (2020). Mundu berrira zabaldutako gure atea. Ate joka dugun mundua eta bertan dugun mundua, TM. Lab Euskal herrigintza Laborategia (Koord)-ren *Covid eta ondoren zer?-en*. Elkar. (39-45. orr.)

zerrendatuko ditugu labur-labur eta zortzi puntutan banatuta. Ondorengo zerrendaren helburua ez da, inola ere familia eta elkarteei zer egin behar duten esatea, baizik eta elkarte edo/eta familia batzuetan egon diren praktika-onetan sakondu eta, aurreratzean, beste batzuei baliagarri suerta dakizkiekeenetan sakontzea.

- 1. Familia batzuek profesionalen laguntza lortu dute beren premiak asetzeko.** Esate baterako, fisio saioak behar zituzten pertsonetan gertatu da hori. Fisioterapia jasotzeko kontaktua ezinbestekoa denez eta itxialdian zein “normaltasun berria” zioten egoera hartan fisioterapeuten zerbitzuak jasotzea zaila edo arriskutsu izan zitekeenez (Hiru-Hamabiko familiaren kasuan, gogora dezagun, ukatu egin zieten), haur eta guraso batzuk fisio saioak ikastera behartuak ikusi dira. Horretarako, askok, profesionalekin kontaktuan jarri dira edo alderantziz eta bideo-deien bitartez eta fisio saioak eman dituzte autonomoki (*Arnasako* eta *Gure Señeakeko* kideen kasua da, esaterako. Bada guraso eta haur/gazte horiek fisioterapia nozio edo ikaskuntza minimo batzuk barneratu dituzte prozesu honetan zehar, zeinak aurrerantzean –oporretan adibidez– baliagarriak izango zaizkien beren ongitasun fisikoaren mantenua bermatuta izateko.
- 2. Elkarteen indarraz baliatuta administrazioengan indarra egiteak batzuetan eragina izan du.** Izan ere, nahi zen guztia lortu ez duten arren, elkarteen indarraz baliatuta elkarteek pandemian zituzten hainbat helburu lortu dituzte. Esaterako, *Bihotzez* elkarteko kideek haurren hezkuntza-eskubidea bermatzeko lan egin dute Nafarroan eta etxeko hezkuntza lortu dute. Bestalde, *Hiru Hamabiko* elkarrizketatua gogor saiatu den arren eta garai pandemikootan bere helburuak erdietsi ez baditu ere, aurretik, borroka luzez hainbat eskubide lortu zituen bere alabarentzat. Aldiz, *Gure Señeakeko* kideek jakin izan zuten beren txertaketak zirela-eta gaia legebiltzarkide bati adierazten. Beraz, honek erakusten diguna zera da, dretxoen eta haur zein gazteen bizi-kalitatearen oparotasunera ailegatzeko kondizioak ematen ez badira, eskubide horiek bermatuak egoteko arduradun diren eta gaitasuna izan beharko luketenei exijitu behar zaie. Gero, gertatu den eran, erantzuteko konpetentzia eza nabari bada erakunde publikoengan, estrategia berriak sortu beharko dituzte. Horretarako genioen elkarteek inferentzia politikoa izan behar dutela, euren baino proposamen hobeak ez baitizkie inortxok ere egingo ongizate-erakundeei.
- 3. Hedabideetan tokia izaten jarraitu behar da.** Adibidez, *Hiru Hamabiko* familiak bere alabagatiko militantziarekin instituzioak molestatu eta prentsaren aurrean, berak dioenez, “gezurra esatera” eraman zituen: *“Gainera, bere alabagatiko militantziarekin instituzioak molestatu eta prentsaren aurrean, berak dioenez, “gezurra esatera” eraman zituen²⁶; beraz entzuna izan zen”*. Bederen adituak izan ziren eta familiatik bilatzen zuten erantzuna jaso ez bazuten ere, gizarteak beren kausaz jakin eta nolabaiteko sostengu soziala lortzeko eta euren kausa gizarteratzeko balio izan zien, gauzen sozializazioa horren garesti dagoen garaiotan. Hori gutxi balitz, erakundeek gezurra esan izanean beren ahultasunaz konturatzeko balio izan digu eta beraien gogoetarako ere balio izan dezake, jokabide ez-zilegi hori hartzera jada ezagutu duten hutsune batek eraman

baititu. Era berean, hor ibili dira Sare Sozialak mugitzen *Bihotzez* eta *Arnasa* bezalako elkarteak beren haurrak txertatuak izan daitezen, eta horrek kontzientziazio soziala gauzatzeko balio dute, baita situazio ezberdinak ezagutarazteko ere.

4. **Gehiago ezagutzeko baliagarria izan da itxialdia**, nahiz eta hau gogorra izan. Esatea erraza den arren, gaur egun familia elkartzea ez da erraza eta, bai txarrerako, bai onerako, konfinamenduak horretarako balio izan du. *Pausokako* familiak, esate baterako, itxialdi-egoerari puntu positibo hori ikusten dio: *“Gainera, gu hiru bizi gara etxean, eta hirurok han ginenez, emozionalki nik uste dut oso onuragarria izan zela. Pasa zizkieten lanekin, eta egin genuen lanarekin, nik uste dut, Ekiren garapena hobeto ezagutzeko aukera eman zigula guri ere”*. Batzuen iritziz behartzekoa izango da *“oraindik ez ezagutzea”*, baina gurasoak lanean dauden orduetan, edota haurrak eskolan eta eskolaz-kanpoko ekintzetan daudenean elkar-ezagutzarako ordu asko galtzen dira. Tamalez, denbora hori berreskurazina da lana eta eskola, biak ala biak, ezinbestekoak direlako. Bada etxean egoteko izan dugun *“aukera”* horrek familiarteko harremanak hobetu edo bata bestea konprenitzeko balio izan badu ongi-etorria izan dadila, horrek haurren premien aurrerantzeko erantzunean eragin positiboa izan baitezake.
5. **Etorkizunean berehalako erantzun profesionaletarako prestatuago gaude**. Krisi guztietatik ikasten omen de zer edo zer, bada pandemiak bat-batean sortzen diren egoerei erantzuten irakatsi digula uste dugu. Azken finean, erantzun medikoek, hezkuntza-erantzunek, terapiak, fisioterapiak, etab. beste forma ez-presentziala hartu izanak aukera berriak ere zabaltzen ditu. Esate baterako, haur bati derrepentean zerbait gertatzen bazaio (gaixotasunak, infekzioak ...), lehendabiziko kontsultak on-line modura izan daitezke. Era berean, kasu batzuetan gertatzen zen eskola absentismoari aurre egiteko neurri berriak eratu dira, nahiz eta horren efikazak ez diren eta ikasleria guztiarentzat balio ez duten.
6. **Pandemiak erakutsi dizkigun baliabide digitalak erabli daitezke sozializaziorako** eta, etorkizunean, nahiz eta itxialdirik ez egon harremanak mantentzeko. Azken batean, *Bizipozan* badaude etxetik irtetea zailago zaien haur eta gazteak, baina *Afesta*-ko elkarriketatuaren kasuan bezala, ordenagailuan ibiltzea gustatzen zaienak. Era berean, harreman asko mantendu dira sare sozialen bitartez: bai haur, gazte eta helduenak; bai elkarteak. Elkarteek esaterako ez dute harreman-galtze handiegia izan boluntarioekin eta, baliteke, horretan sare sozialek lagundu izana. Beraz, nahiz eta ez diren gehien gustatzen zaizkigun tresnak, funtzio bitxi bezain eraginkorra betetzen dute.
7. **Elkarteek martxan jarri dituzten metodologia eta teknika berriak normalki egiten diren jardueren osagarri gisa erabiltzea** ezinbestekoa da. Izan ere, elkarteek hainbat bide berri hartu behar izan dituzte euren haurrei eta familiei erantzun ahal izateko, beraz hainbat alderditan abiltzeko aukera izan dute (ikus-entzunezko baliabideetan eta komunikatzeko era digitaletan esate baterako) entitate hauek. Hori dela medio,

etorkizunean beren eginkizunak gehiago hedatzeko eta publiko anitzago batera iristeko, elkarreetatik egiten diren ekimenen osagarri gisa erabil daitezke baliabide eta metodologia horiek. Adibide garbia da *Bizipozak* V. Jardunaldian emango duen online aukera eta presentziala. Horregatik, aukera ona izan da hau elkarteko kideak zeharka IKTetan gaitzeko eta, hartara, aurrerantzean egon daitezkeen zailtasunen edo aukeren aurrean, beren eskubideak hobekiago edo nahieran segurtatzeko.

8. ***Bizipoza* erakundearen arteko arteko komunikazioa eta behar/erreibindikazio komunak bilatu eta denek batera ekitea.** Azken finean hori baita idazki guzti honen helburua: elkarre ezberdinen beharrak komunean jarri eta denok batera, txalupa berean eta norabide berean arraun eginez ekiteko aukerak sortzen. Ikerketa honek irakatsi digu COVID-19ak sortu duen egoerak elkarre, familia eta haur gehienetan premia berriak sortu dituela eta, askotan, premia eta eskubide urraketa horien iturria berbera dela, gerora ur tanta bakoitzak hartzen duen norabidea ezberdina bada ere. Gauzak horrela, *Bizipoza*, bere baitan dauden elkarreetako arazo sakabanatuak hartu, zentrora eramane eta eskubide-urraketa, premia bete gabe, zailtasun horiek guztiak isurtzen dituen iturriraino ailegatzeko espazio gisa aldarrikatu nahi da: eztabaida-, gogoeta-, partekatze-gune... gisa, alajaina. Aurtengoan koronabirusaren pandemia izan da txorrita hori gehiago zabaldu duena, baina konturatu gara beste eragile batzuk ere badaudela bertan eragiten dutenak.

KONKLUSIOAK

Amaiera bat emateko, ikusi dugu egoera gogorrek bizi behar izan dituztela hainbat familia eta hurrek. Finean, guztion eskubideak gelditu dira kolokan garaiotan, baina onartu behar da haur eta gazte batzuek pairatu behar izan dituzten situazioak ez direla errazak izan. Gainera premia berri gehien sortu ziren unean eta erakunde publikoak COVID-19agatik bakarrik arduratzen zen unean, elkarre ekiteko arazoak izan dituzte eta, horrek, egoera are gehiago zaildu du. Halere, koronabirusaren epidemiaren aurretik egindako lana aintzat hartuta, esan dezakegu ez direla eskubide askozaz gehiago urratu, baina bai, aldiz, modu dimentsionatuagoan. Hau da, dretxo berdintsuen hutsunea dago, baina garaiotan hutsune hori zabalagoa izan da arrazoi ezberdinengatik: behar berriak sortu dira; instituzioen arreta-fokua beste bat zen; elkarre zein familiek haur eta gazteei erantzuteko mugak izan dituzte; etab. Zailtasun horiek medio horrela dio parte hartzaile anonimo batek: *“Gertutasunak duen garrantzia baieztatu dugu”*

Elkarre eta familiek, ordea, begi bistan ikusi dute beharrezko lana egiten dutela, nahiz eta nekeza suertatzen den. Horregatik adierazi *Bizipozako* erakunde batek ondorengoak: *“Nabarmen geratu da elkarre duen garrantzia gure ekimenean”*. Azken finean, elkarre askok, zailtasunak medio, egokitze aukera izateaz gain, ikaskuntza anitz gauzatu dituztenaren sententzia dute: *“Itxialdiak iraun zuen denboran elkartetik egoera berriei aurre egiteko duen gaitasuna erakutsi dugu eta metodologia berriak erabili ditugu familien ondoan egoteko. (...) Eskaintzen ditugun zerbitzu (ia guztiak) ematen jarraitu dugu metodologia aldatuta eta horietako*

aldaketa batzuk, gelditu egingo dira". Beraz, esan genezake krisi honetatik zirenak baino eraginkorrago ateratzeko aukera ere badagoela ikustarazi digute. Azken batean, ugariak izan dira praktikan jarritako metodologiak eta egoera zail hauetan sortu diren arazoei emandako aterabideak. Halaber, jakinaren gainean gaude instituzioekiko hainbat gauza erdietsi direla, nahiz eta zailtasunak egon diren.

Azkenik, adierazi, elkarre batek galdetegietan jarri zigun moduan, *"bateratasuna garrantzitsua dela, eta denon eguneroko arazoak berdinak direla eta elkar babestu behar dugula, gauza gehiago lortzeko"*. Beraz, egoera konplexuak bizi izan ditugun arren, Bizipozan eta bizipozez jarraitu behar dugu denok batera. Elkarreak geroz eta garrantzitsuago dira eta hala izango dira aurrerantzean ere, beren eraginkortasun positiboa erakutsi baitute. Horretaz ere aprobetxatu beharra dago, hau da, dugun inportantiaz; finean, nahiz eta ekimenak indarra izan erakundeek duten garrantzia erakutsi behar zaie gizarteari eta erakundeei, beraiek ere kolabora dezaten. Baina hainbestetan errepikatu dugun moduan, indarrak batuta mardulagoa izango da saria, hala bakarrik zapalduko baitugu gogoz utopiarantz egiten gabiltzan bidea.